



LKS AUDITORES, S. L. P.
Polígono Basabe. Pab. E-0 2º Dcha
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
T: 943 03 74 80
F: 943 03 74 81
lksauditores@lksauditores.es
www.lksauditores.es

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

**Urteko kontu laburtuen
auditorretza-txostena, 2021eko
abenduaren 31koa, auditore
independente batek egina**

2022ko ekaina

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

**URTEKO KONTU LABURTUEN AUDITORETZA-TXOSTENA
2021EKO ABENDUAREN 31KOA
AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINA**



LKS AUDITORES, S. L. P.
Polígono Basabe. Pab. E-0 2º Dcha
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
T: 943 03 74 80
F: 943 03 74 81
lksauditores@lksauditores.es
www.lksauditores.es

URTEKO KONTU LABURTUEN AUDITORETZA-TXOSTENA AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINA

MUNDUKIDE FUNDAZIOAren Patronatuari:

Iritzia

MUNDUKIDE FUNDAZIOAren urteko kontu laburtuak ikuskatu ditugu. Honako hauek hartzen dituzte barne: 2021eko abenduaren 31ko balantze laburtua, emaitza-kontu laburtua eta egun horretan bukatu den ekitaldiko memoria laburtua.

Gure ustez, honekin batera doazen urteko kontu laburtuek zorrotasunez islatzen dituzte, alderdi nabarmen guztietan, MUNDUKIDE FUNDAZIOAk 2021eko abenduaren 31n duen ondarea eta egoera finantzarioa, eta egun horretan bukatutako ekitaldiko eragiketen emaitzak. Horiek guztiek bete egiten dituzte aplikatzekoak diren finantza-informaziorako arauak —memoria laburtuaren 2.a oharrean zehaztu dira— eta, bereziki, horietan jasotako kontabilitate-printzipio eta -jarraibideak.

Iritziaren oinarria

Auditoretza egiteko, Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzei buruzko araudian oinarritu gara. Arau horien arabera dagozkigun erantzukizunak geroago deskribatuko ditugu, gure txostenaren atal honetan: Auditorearen erantzukizunak urteko kontu laburtuen auditoretzan.

Entitatetik independenteak gara, eta, beraz, bete egiten ditugu Espainian urteko kontuen gure auditoretzari aplikatzekoak diren etika-eskakizunak, independentziarenak barne, kontu-auditoretzako jarduera erregulatzen duen araudiak eskatutakoaren arabera. Zentzu horretan, ez dugu kontu-auditoretzaz bestelako zerbitzurik eman, eta ez da sortu aipatutako araudiaren arabera beharrezko independentzia zalantzan jarri duenik.

Gure ustez, auditoretzarekin lortu dugun ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia bermatzen du iritzia emateko.

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Urteko kontu laburtuen auditoretza-txostena. 2021eko abenduaren 31koa.
auditor independente batek egin

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak

Hauek dira auditoretzako alderdirik garrantzitsuenak: gure iritzi profesionalaren arabera uneko epealdiko urteko kontu laburtuen auditoretzan akats materiala eragiteko arrisku nagusitzat jotakoak. Arrisku horiek osotasunean aztertu ditugu gure urteko kontu laburtuen auditoretzan, eta osotasunean eman dugu, halaber, horiei buruzko iritzia; hau da, ez dugu arrisku horietako bakoitzari buruzko iritzi bereizirik adierazi.

Dirulaguntza bidezko diru-sarrerak aintzatestea***Azalpena***

MUNDUKIDE FUNDAZIOA fundazio pribatua da, eta helburu hau du: hegoaldeko herrialdeekin lankidetzan aritzea eta esperientziak, baliabideak eta ezagutza metatua partekatzea, inplikaturako alderdien garapen autogestionatu eta integrala sustatzeko. Horretarako, kooperatiben elkartasuna aktibatzen du, Mundukideren balio eta printzipioetan oinarrituta. 2021eko ekitaldiko diru-sarrera guztietatik % 59,19 proiektu jakinetarako dirulaguntzetatik etorri dira; beraz, administrazio publikoetatik datozen diru-sarreraren menpekotasun handia dauka Fundazioak.

Dirulaguntzak kobratzeko eskubidearen bidezkoatasuna egiaztatzea eta sortzapen-irizpideen arabera emaitzetara edo hainbat ekitalditan banatzeko diru-sarreretara egozteko alderdi garrantzitsuak dira gure auditoretzan, dirulaguntza horiek emaitza-kontuan duten bolumena eta ekitaldiko diru-sarrerak zehaztean akats materiala egiteko arriskua aintzat hartuta.

Gure erantzuna

Alderdi horri dagokionez, honako hauek egin ditugu, besteak beste, gure auditoretza-prozeduretan: dirulaguntzak emateko ebazpenen zuzentasuna aztertu (ez itzultzekoak direla ikusirik) eta kontabilitatean helburuaren arabera egoki jaso diren egiaztatu. Ikusi dugunez, bete egin dira dirulaguntzak emateko ezarritako baldintzak eta ez dago jasotzearen inguruko arrazoizko zalantzarik. Era berean, erakunde publiko nahiz pribatuek emandako dirulaguntzen esleipen-erabakiak berrikusi ditugu, eta ohartu gara ekitaldiko emaitzari egotzitako dirulaguntzak daudela eta 2019ko ekitaldia ixtean oraindik kobratu gabeko zenbatekoak daudela. Orobat, egiaztatu ahal izan dugunez, zenbateko horiek geroago kobratu dira, edo, zegoekionean, kobratzeko dagoen saldoa arrazoizkoa izan da.

Bestalde, honekin batera doan memoriaren 4.h, 4.j, 12 eta 15.c oharretan azaldutako edukiei buruz Entitateak emandako informazioaren egokitasuna ere aztertu dugu.

Egindako prozeduretan oinarrituta, gure iritziz arrazoizkoak dira jasotako dirulaguntzen harira urteko kontuetan egindako kontabilitate-tratamendua eta informazio-xehakapena, eta bat datoz lortutako ebidentziarekin.

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Urteko kontu laburtuen auditoretza-txostena. 2021eko abenduaren 31koa.
auditor independente batek egina

Patronatuko kideen erantzukizuna urteko kontu laburtuen inguruan

Honekin batera doazen urteko kontu laburtuak formulatzea Patronatuko kideen ardura da, eta Entitatearen ondarea, finantza-egoera eta emaitzak islatu behar dituzte, zorrotasunez, Espainian Entitateari aplikatu behar zaizkion finantza-informaziorako arauak betez eta urteko kontu laburtuak iruzur edo hutsegiteen ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko nahitaezkotzat jotzen duten barne-kontrolari jarraikiz.

Urteko kontu laburtuak prestatzean, Patronatuko kideen ardura da Entitateak jarduneko enpresa izaten jarraitzeko gaitasuna ote duen balioztatzea. Dagokionean, jarduneko enpresari lotutako gaiak azaldu eta jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabili behar dute, salbu eta Patronatuko kideek Entitatea likidatzeko eta eragiketak amaitzeko asmoa badute, edota beste aukera errealistik ez badago.

Auditorearen erantzukizunak urteko kontu laburtuen auditoretzaren inguruan

Gure helburuak dira, batetik, arrazoizko segurtasuna lortzea urteko kontu laburtuek osotasunean iruzur edo hutsegiteen ondoriozko akats materialik ez dutela bermatzeko eta, bestetik, gure iritzia jasotzen duen auditoretza-txostena egitea. Arrazoizko segurtasuna segurtasun-maila handia da, baina ez du bermatzen Espainian kontu-auditoretzaren jarduna erregulatzen duen araudiaren arabera egindako auditoretzek akats materialak beti antzemango dituztenik, baldin badaude. Akatsak iruzur edo hutsegiteen ondoriozkoak izan daitezke, eta materialtzat jotzen dira, baldin eta arrazoizkoa bada aurreikustea urteko kontu laburtuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragina izango dutela.

Espainiako kontu-auditoretzei buruzko araudiarekin bat, gure iritzi profesionala ematen dugu eta eszeptizismo profesionalean oinarritutako jarrierari eusten diogu auditoretza osoan. Eta, gainera:

- Urteko kontu laburtuetan iruzur edo hutsegiteen ondoriozko akats materialak egoteko arriskuak identifikatzen eta balioztatzen ditugu, arrisku horiei erantzuteko auditoretzako prozedurak ezartzen ditugu eta gure iritzia oinarritzeko auditoretza-ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu. Iruzurraren ondoriozko akats materiala ez antzemateko arriskua handiagoa da hutsegitearen ondoriozko akats materiala ez aurkitzeko arriskua baino; izan ere, iruzurrak berekin ekar ditzake kolusioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea.
- Auditoretzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren berri jasotzen dugu, zirkunstantzien arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko, ez entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunaren gaineko iritzia emateko.
- Erabilitako kontabilitate-politikak egokiak diren eta kontabilitate-estimazioak eta Patronatuko kideek emandako informazioa arrazoizkoak diren balioztatzen dugu.

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Urteko kontu laburtuen auditoretza-txostena, 2021eko abenduaren 31koa,
auditor independente batek egina

- Patronatuko kideek jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten erabakitzen dugu, eta, lortutako auditoretza-ebidentzian oinarrituta, ondorioztatzen dugu gertaeretan edo baldintzetan ba ote dagoen ziurgabetasun materialik, entitateak jarduneko enpresa izaten jarraitzeko gaitasunaren inguruan zalantza nabarmenak sortzeko modukorik. Zalantza materiala dagoela ondorioztatuz gero, urteko kontu laburtuetan horren inguruan emandako informazioari buruz ohartarazi behar dugu gure auditoretza-txostenean. Eta, informazio hori okerra bada, iritzi aldatua eman behar dugu. Auditoretza-txostenaren egunera arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira gure ondorioak. Dena dela, litekeena da etorkizuneko egitateen edo baldintzen ondorioz entitateak jarduneko enpresa izateari utzi behar izatea.
- Urteko kontu laburtuen (eta informazioaren) aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, baita urteko kontu laburtuek transakzio eta azpiko egitate guztiak egoki jasotzen dituzten ere, benetako egoera zehatz-mehatz islatzeko.

Entitatearen Patronatuko kideekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako auditoretza noiz egingo den eta zer irismen izango duen jakiteko, auditoretzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeke eta auditoretzan aurkitutako barne-kontrolleko edozein urritasun nabarmenen berri emateko.

Entitatearen Patronatuko kideei jakinarazitako arriskurik handienekoei dagokienez, uneko epealdiko urteko kontu laburtuen auditoretzako nabarmenenak zehazten ditugu, horiexek baitira arriskurik garrantzitsuenak.

Arriskuok gure auditoretza-txostenean deskribatzen ditugu, betiere legezko edo arauzko xedapenak kasuan kasuko gaia plazaratzea debekatzen ez badute.

LKS AUDITORES SLP

ROAC zenbakia: S1054



Pedro M^a Jauregui Bidaburu

ROAC zenbakia: 19.295

2022ko ekainaren 8a



LKS AUDITORES, S.L.P.

2022 Núm.03/22/03618

Informe de auditoría de cuentas sujeto
a la normativa de auditoría de cuentas
española o internacional

Auditoretza-txosten hau gaztelaniaz 2022ko ekainaren 8an igorritako jatorrizko auditoretza-txostenaren kopia bat da, euskara itzulitakoa; hortaz, itzulpenak bestelako interpretaziorik eragiten badu, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

URTEKO KONTU LABURTUAK, 2021EKO EKITALDIKOAK

AURKIBIDEA

Egoera-balantze laburtua, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31koa

Emitza-kontu laburtua, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31koa

Memoria

1. Fundazioaren izaera eta helburua
2. Urteko kontu laburtuak aurkezteko oinarriak
3. Ekitaldiko soberakina
4. Erregistro- eta balioztapen-arauak
5. Ibilgetu ukiezina
6. Ibilgetu materiala
7. Finantza-aktiboak eta -pasiboak kategorien arabera
8. Epe luzeko finantza-inbertsioak
9. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak
10. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak
11. Funtz propioak
12. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak
13. Epe laburreko zorrak
14. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelako kontuak
15. Sarrerak eta gastuak
16. Entitatearen jardura. Ondare-elementuak norberaren helburuetarako erabiltzea.
Administrazio-gastuak
17. Bestelako informazioa
18. Inbentarioa
19. Itxieraren ondorengo egitateak

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

EGOERA-BALANTZE LABURTUA, 2021EKO ETA 2020KO ABENDUAREN 31KOA

(Eurotan adierazita)

AKTIBOA	Oharra	2021-12-31	2020-12-31	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Oharra	2021-12-31	2020-12-31
<u>AKTIBO EZ-KORRONTEA</u>		<u>3.782</u>	<u>4.113</u>	<u>ONDARE GARBIA</u>		<u>5.087.991</u>	<u>4.191.188</u>
I. Ibilgetu ukiezina	5	-	-	I. Funtz propioak	11	1.137.727	1.137.727
II. Ibilgetu materiala	6	1.437	1.768	I. Fundazioko zuzkidura		6.371	6.371
III. Epe luzeko finantza-inbertsioak	8	2.345	2.345	1. Fundazioko zuzkidura		6.371	6.371
				II. Erreserbak		1.131.356	1.131.356
				III. Ekitaldiko soberakina		-	-
				2. Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	12	3.950.264	3.053.461
<u>AKTIBO KORRONTEA</u>		<u>5.198.969</u>	<u>4.284.362</u>	<u>PASIBO KORRONTEA</u>		<u>114.760</u>	<u>97.287</u>
I. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	9	980.676	1.183.358	I. Epe laburreko zorrak	13	7.329	7.204
II. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	10	4.218.293	3.101.004	1. Kreditu-erakundeekiko zorrak		7.109	7.015
				2. Epe laburreko bestelako zorrak		220	189
				II. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bestelako kontuak	14	107.431	90.083
				1. Hornitzaileak		20.616	10.594
				2. Beste hartzekodun batzuk		86.815	79.489
AKTIBOA GUZTIRA		5.202.751	4.288.475	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		5.202.751	4.288.475

Erantsitako memoria laburtuan adierazi diren 1etik 19ra bitarteko oharrak 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko egoera-balantze laburtuaren osagaiak dira.

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea





MUNDUKIDE FUNDAZIOA

EMAITZA-KONTU LABURTUA, 2021EKO ETA 2020KO ABENDUAREN 31KOA

(Eurotan adierazita)

	Oharra	2021-12-31	2020-12-31
A) Ekitaldiko soberakina			
1. Jardueraren ondoriozko sarrerak		1.743.080	1.468.047
a) Elkarre eta afiliatuen kuotak	15.a	98.039	105.316
b) Sustapenetatik eta babesle eta kolaboratzaileengandik etorritako sarrerak	15.b	557.346	665.312
c) Ekitaldiko soberakinari egotzitako dirulaguntzak, dohaintza eta legatuak	15.c	1.087.695	697.419
2. Laguntzen eta bestelakoen ondoriozko gastuak		(817.860)	(604.809)
a) Laguntza monetarioak	15.d	(765.413)	(565.392)
b) Laguntza ez-monetarioak	15.e	(52.447)	(39.417)
3. Jarduerako bestelako sarrerak		114.120	79.003
4. Pertsonal-gastuak	15.f	(790.440)	(777.304)
5. Jarduerako bestelako gastuak	15.g	(245.147)	(161.393)
6. Ibilgetuaren amortizazioa	6	(332)	(332)
A.1) JARDUERAREN SOBERAKINA		3.421	3.212
7. Finantza-sarrerak			-
8. Finantza-gastuak	7	(3.470)	(3.140)
9. Kanbio-aldeak	16	49	(72)
A.2) FINANTZA-ERAGIKETEN SOBERAKINA		(3.421)	(3.212)
A.3) ZERGA AURREKO SOBERAKINA			
10. Mozkinen gaineko zergak		-	-
A.4) Ondare garbiaren aldakuntza, ekitaldiko soberakinean kontabilizatua			
B) Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak			
1. Jasotako dirulaguntzak	12	2.132.917	1.536.983
a) Dirulaguntzak		2.132.917	1.463.132
b) Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak		-	73.851
2. Beste sarrera eta gastu batzuk		-	-
B.1) Ondare garbiaren aldakuntza, zuzenean ondare garbian kontabilizatutako sarrera eta gastuengatik		2.132.917	1.536.983
C) Ekitaldiko soberakinari egindako birsailkapenak			
1. Beste sarrera eta gastu batzuk	12	(1.236.114)	(764.873)
a) Dirulaguntzak		(1.216.297)	(764.873)
b) Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak		(19.817)	
2. Beste sarrera eta gastu batzuk			
C.1) Ondare garbiaren aldakuntza, ekitaldiko soberakinari egindako birsailkapenengatik		(1.236.114)	(764.873)
D) Ondare garbiaren aldakuntza, zuzenean ondare garbiari egotzitako sarrera eta gastuengatik (B.1 + C.1)		896.803	772.110
E) Irizpide-aldaketen ondoriozko doikuntzak			-
F) Hutsegiteen ondoriozko doikuntzak			-
G) Aldakuntzak Fundazioaren zuzkiduran			-
H) Bestelako aldakuntzak			-
I) EMAITZA GUZTIRA, EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA (A.4+D+E+F+G+H)		896.803	772.110

Erantsitako memoria laburtuan adierazi diren 1etik 19ra bitarteko oharrak 2021eko eta 2020ko abenduaren 31ko emaitza-kontu laburtuaren osagaiak dira.

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

1. OHARRA. FUNDAZIOAREN IZAERA ETA HELBURUA

MUNDUKIDE FUNDAZIOA (aurrerantzean, Fundazioa) 1999ko irailaren 10eko eratze-eskritura bidez sortutako fundazio pribatua da. Arrasateko (Gipuzkoako) Zarugalde kalearen 30. zenbakian du egoitza soziala.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 2016ko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak eta 2019ko uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari eta Erregistroari buruzko Erregelamendua onartzen duenak arautzen dute Fundazioaren jarduna.

Hona hemen Fundazioaren helburuak:

- a) Hegoaldeko eskualdeetan garapen sozioekonomiko duina bultzatzea. Gutxieneko beharrianak (hala nola elikadura, osasuna, hezkuntza eta ur edangarria) aseta edukitzea jotzen dugu garapen-maila duintzat.
- b) Enpresak (ahal dela, kooperatibak) sortzen laguntzea jardun hori betetzeko potentzialtasuna duten hegoaldeko herrietan.
- c) Esperientziak trukatzeko auzolanean eta gizarte-garapenerako beste esperientzietan jardun luzea duten komunitate indigenen eta Fundazioa osatzen duten erakundearen artean.

Erabilera askeko diru-sarreraren eta hirugarrenek finantzatuta ez dauden gastuen arteko aldea banatu beharreko sarreraren kontuan erregistratzea onartu zuen Patronatuaren Batzordeak 2018ko otsailaren 12an egindako bileran. Halatan, ekitaldi bakoitzeko urteko soberakina zero eurokoa izango da, eta egon litezkeen alde positiboak edo negatiboak kudeaketako bestelako gastu eta sarreraren kontuan erregistratuko dira. 2017ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ezarri zen lehenengoz irizpide hori.

2. OHARRA. URTEKO KONTU LABURTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Fundazioari ezarri behar zaion finantza-informazioaren arau-esparrua

Urteko kontu laburtu hauek Fundazioari ezarri behar zaion finantza-informazioaren arau-esparruari jarraikiz egin dituzte Patronatuko kideek. Hauek osatzen dute arau-esparru hori:

- Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik gabeko entitateetara egokitze arauak, 2011ko urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuak onetsitakoak, eta, berariaz landu gabeko gainerako kontuetarako, 2007ko azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onetsi zuen Kontabilitate Plan Orokorren arauak, eta gerora egin zaizkion aldaketek, honako hauen bidez: 2010eko irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretua, 2016ko abenduaren 2ko 602/2016 Errege Dekretua eta 2021eko urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretua.
- Kontabilitate Plan Orokorra eta berorren arau osagarriak garatzeko Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak onartutako nahitaezko arauak.

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

3

- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 2016ko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak eta 2019ko uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzari eta Erregistroari buruzko Erregelamendua onartzen duenak.
- Aplikatzekoak diren Espainiako gainerako kontabilitate-arauek.

b) Egoera zehaztasunez

2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontu laburtuak Fundazioaren kontabilitate-erregistroetan eskuratu dira, eta Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik gabeko erakundeetara egokitzeko arauen, 2011ko urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuak onetsitakoen, arabera aurkeztu dira. Berariaz landu gabeko gainerako kontuetarako, 2007ko azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onetsitako KPOaren arauak aplikatuko dira.

Fundazioaren 2021eko ekitaldiko urteko kontu laburtuak 2022ko otsailaren 15ean formulatu dira, eta Fundazioaren Gobernu Batzordearen - Patronatuaren esanetara jarriko dira, onar ditzan. Inolako aldaketarik egin gabe onartuko dituela uste dugu.

Fundazioaren Patronatuak 2021eko ekainaren 30ean egindako bileran onartu zituen 2020ko urteko kontu laburtuak.

c) Kontabilitate-printzipioak

Kontabilitate Plan Orokorra irabazi-asmorik gabeko erakundeetara egokitzeko arauetan jasotako nahitaezko kontabilitate-printzipioen arabera prestatu dira urteko kontu laburtuak. Arau horiek 2011ko urriaren 24ko 1491/2011 Errege Dekretuaren bidez onetsita daude. Berariaz landu gabeko gainerako kontuetarako, Kontabilitate Plan Orokorreko arauak aplikatu dira. Plan hori 2007ko azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onetsi zuen, eta gerora honako hauen bidez aldatu da: 2010eko irailaren 17ko 1159/2010 Errege Dekretua, 2016ko abenduaren 2ko 602/2016 Errege Dekretua eta 2021eko urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretua. Ez da utzi aplikatu gabe eragin nabarmena duen inolako kontabilitate-printzipiorik.

d) Informazioaren konparaketa

Urteko kontu laburtuek, 2021eko ekitaldiko zifrez gain, aurreko ekitaldikoak ere jaso dituzte, alderatzeko. Hain zuzen ere, Patronatuak onartutako 2020ko ekitaldiko urteko kontuen parte diren zifrak aurkeztu dira balantzearen partida bakoitzean, galdu-irabazien kontuan eta memorian.

2021eko urtarrilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretuak egindako Kontabilitateko Plan Orokorren aldaketa aplikatzea


2007ko azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra aldatzen duen 2021eko urtarrilaren 12ko Errege Dekretuak aldaketak ezarri ditu «Finantza-tresnak» eta «Salmenten eta emandako zerbitzuen ondoriozko sarrerak» atalei dagozkien erregistro- eta balioztapen-arauak FINA-EB 9 eta FINA-EB 15 arauetara egokitzeko, hurrenez hurren. Horrez gain, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren 2021eko otsailaren 10eko Ebazpenak urteko kontuak erregistratu, baloratu eta prestatzeko arauak eman ditu, ondasunak entregatzearen eta zerbitzuak ematearen ondoriozko diru-sarrerak kontabilizatzeko.

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea



Hauek dira 1/2021 Errege Dekretua aplikatzeak Fundazioan dituen eraginak:

Finantza-tresnak

Finantza-aktibo eta -pasiboei dagokienez, irizpide berriak sartu dira horiek sailkatzeko, baloratzeko eta kontuetan baja emateko.

2020ko finantza-aktibo eta -pasiboen sailkapena aldatzea erabaki da, balorazioari eragin gabe. Fundazioak ez du doikuntzarik izan erreserbako finantza-aktibo eta -pasiboen liburuetaiko zenbatekoari dagokionez 2021eko urtarrilaren 1ean.

2020ko ekitaldiko finantza-tresnen informazioa onartutako kategoria berrien arabera birsailkatu da, alderaketak egiteko.

Jarrian, finantza-tresnen sailkapena ageri da, kategoria berrien arabera:

Finantza-aktiboak

2020ko abenduaren 31		2021eko urtarrilaren 1a	
Kontzeptua	Kontabilitate-balioa (eurotan)		Kontzeptua
	Zenbatekoa	Zenbatekoa	
Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak	2.345	2.345	Ondarean aldatetako finantza-aktiboak arazoizko balioan
Maileguak eta kobratzeko partidak	312.978	312.978	Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan
Guztira	315.323	315.323	
Diferentzia			

Finantza-pasiboak

2020ko abenduaren 31		2021eko urtarrilaren 1a	
Kontzeptua	Kontabilitate-balioa (eurotan)		Kontzeptua
	Zenbatekoa	Zenbatekoa	
Zordunketak eta ordaintzeko partidak	58.514	58.514	Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan edo kostua
Guztira	58.514	58.514	
Diferentzia			

e) Ziurgabetasuna balioztatu eta estimatzearen alderdi kritikoak

Urteko kontu laburtuak egiteko, zenbait kontabilitate-estimazio erabili ditugu, eta iritziak, estimazioak eta hipotesiak egin ditugu, Fundazioaren balioztapen-arauak aplikatzeko prozesuan. Hauek dira erantsitako urteko kontu laburtuetan eragin nabarmena izan duten estimazioak:

- Fundazioak urtero egiaztatzen du narriadura-zantzuak dituzten aktiboetan halakorik badagoen, eta, ondorioz, haien balio berreskuragarria zenbatesten du.
- Ibilgetu ukiezina eta ibilgetu materiala balio-bizitzari estimatzen zaion urte-kopuruaren arabera amortizatzen ditu Fundazioak. Ondorioz, ibilgetu horiek funtzionamenduaren, erabileraren eta luperketaren eraginez jasaten duten balio-galera zenbatetsi behar du, haietan eraginik izan lezaketen zaharkitze tekniko eta komertziala ere bazter utzi gabe.

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administrazioaren

Urteko kontu laburtuak egiteko egunean aztertutako egitateen gainean eskura dagoen informaziorik onenaren arabera egin ditugu estimazio hauek. Hala ere, baliteke etorkizuneko gertaeren ondorioz hurrengo ekitaldietan estimazioak aldatu behar izatea (igotzeko edo jaisteko). Horretarako, prospekzioa erabiliko genuke, estimazio-aldaketak etorkizuneko galdu-irabazien kontuetan izan lezakeen eragina kontabilizatuz.

f) Diru funtzionala

Urteko kontu laburtu hauek eurotan aurkeztu ditugu, horixe baita Fundazioak diharduen eremu ekonomikoan erabilitako dibisa.

g) Kontu-sailak pilatzea

Balantze laburtuko eta emaitza-kontu laburtuko kontu-sail batzuk pilatuta aurkeztu ditugu, ulergarriagoak izateko. Dena den, nahitaezko informazio desagregatua memorian sartu da, kasuan kasuko oharretan.

h) Ondarean egindako zuzenketen ondoriozko doikuntzak

2021eko eta 2020ko ekitaldietako urteko kontu laburtuak egitean ez dugu aurkitu aurreko ekitaldiko kontuetako zenbatekoak (ekitaldi honetako urteko kontuetan alderatzeko aurkeztu direnak) berriro zehaztu behar izateko moduko hutsegite nabarmenik.

i) Informazioaren erantzukizuna

Urteko kontu hauetako informazioa Fundazioaren administratzaileen ardura da.

j) COVID-19aren eragina urteko kontu laburtuetan

2021ean Mundukideren jarduerak COVID-19aren ondorioak pairatu ditu, 2020an baino hein txikiagoan bada ere. Batetik, plantillako kide gehientsuenak kutsatu dira; hori bai, gehienek sintoma arinak izan dituzte. Kezka handiagoa sortu dute gaixotasuna kanpoan pairatu dutenek, behar izanez gero mediku-laguntza ez baitzegoen ziurtatuta. Zorionez, ez da konplikaziorik izan. Dena den, nabarmentzekoa da bertatik bertara lan egiten dutenen egoera; Mozambikeko lankide batek, adibidez, COVID-19a eta malaria izan zituen aldi berean.

Hala, Afrikan, jende askok COVID-19a izan duela uste dugu, baina probak ez daudenez eskuragarri, ez dituzte diagnostikatu, ospitalera joan eta probak ordaindu dituztenen kasuan izan ezik. Aukera hori ez dago herritar gehienek esku. Ildo horretan, aipagarria da Mozambikeko eta Etiopiako gatazkek eragin handiagoa izan dutela jardueran pandemiak berak baino.

Amerikako herrialdeetan txertaketak gora egin du, eta, horri esker, konfinamenduak eten dituzte eta jarduerari berrekin ahal izan zaio. Nolanahi ere, agerikoa da egoerak gure lanean izan duen eragina, eta egokitu beharra izan dugu. Brasilen, esaterako, aurreikusita zeuden aurrez aurreko prestakuntza-saiorik gehienak online prestakuntza bihurtu behar izan dira. Gainera, Ekuador eta Kolonbia arteko muga itxita egon da ia urte osoan, eta ezin izan ditugu aprobetxatu bi herrialdeetako programen arteko sinergiak.

Antolamenduari begira, mugatu egin behar izan ditugu bidaiak, aurrez aurreko bilerak eta boluntarioen eta praktiketako ikasleen jarduera, osasuna lehenesteko. Edonola ere, uda ostean normaltasunari heldu diogu poliki-poliki.

3. OHARRA. EKITALDIKO SOBERAKINA

2021eko abenduaren 31n, Fundazioak emaitza orekatua du, haren jarduera goitik behera finantzatuta baitago.

Lortutako erabilera askeko sarrerek baldintzatzen dute sarreraren eta gastuen aurrekontuaren oreka.

Hona hemen, eurotan, 2021eko eta 2020ko ekitaldietako erabilera askeko sarrerek eta ustiapeneko defizita edo superabita:

KONTZEPTUA	2021	2020
ERABILERA ASKEKO SARRERAK	749.737	849.630
-Bazkide eta afiliatuen kuotak	98.039	105.315
-Sustapenetatik eta babesle eta kolaboratzaileengandik etorritako sarrerek	557.346	665.312
-Jarduerako bestelako sarrerek	94.303	79.003
-Kanbio-aldeak	49	-
SARRERA PROPIOEN BIDEZ FINANTZATUTAKO JARDUERA	(769.554)	(775.779)
Ustiapeneko (-) DEFIZITA / (+) SUPERABITA	(19.817)	73.851
HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO SARRERAK (12. oharra)	-	73.851
DEFIZITA HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO SARREREZ ESTALTZEA	(19.817)	-
EKITALDIKO EMAITZA	-	-

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehenakaria

Idazkaria

Administratzailea

7

4. OHARRA. ERREGISTRO- ETA BALIOZTAPEN-ARAUAK

Hauek dira Fundazioak urteko kontu laburtuak egiteko erabili dituen erregistro- eta balioztapen-arau nagusiak:

a) **Ibilgetu ukiezina**

Hasiera batean, eskuratzeko edo ekoizteko kostuaren arabera kontabilizatzen dira aktibo ukiezinak. Ondoren, amortizazio metatua eta izan duten narriaduraren ondoriozko galerak kentzen zaizkio kostuari.

Informatika-aplikazioak

Enpresa kudeatzeko oinarritzko informatika-aplikazioak eta oinarritzko informatika-sistemak eskuratzeko eta garatzeko kostuak egoera-balantzeko «Ibilgetu ukiezina» epigrafean erregistratzen dira. Informatika-sistemen mantentze-kostuak sortu diren ekitaldiko galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira.

Informatika-aplikazioen amortizazioa linealki egiten da, aplikazioa ustiatzen hasi ondorengo 4 urteko epealdian.

b) **Ibilgetu materiala**

Ibilgetu materialeko ondasun guztiak erabilera propiokoak dira, eta, hasiera batean, eskuratzeko edo ekoizteko kostuaren arabera kontabilizatzen dira. Ondoren, amortizazio metatua eta balio-narriaduragatik kontabilizatutako edozein galera kentzen zaizkio kostuari.

Produktibitatea, edukiera edo eraginkortasuna handitzea nahiz ondasunen balio-bizitza luzatzea eragiten duten zabalkuntza, modernizazio edo hobekuntzen kostuak kapitalizatzeko, ondasun horien kosturik handiena hartzen da aintzat. Balio-bizitza handitzeko balio ez duten konponketak eta mantentze-gastuak sortu diren ekitaldiko emaitza-kontuaren kargura erregistratzen dira.

Metodo linealari jarraikiz amortizatzen du Fundazioak ibilgetu materiala, eta aktiboen kostua balio-bizitzako urte hauen artean banatzen du:

KONTZEPTUA	Balio-bizitza zenbatetsia (urteak)
Bestelako instalazioak	7
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	4

Ibilgetu materialeko elementuak besterenduz sortzen den irabazia edo galera ateratzeko, eragiketa hau egiten da: salmentagatik jasotako zenbatekoa ken besterendutako aktiboaren kontabilitate-balioa.

c) Finantzarioak ez diren eta amortizazioaren edo balio-galeraren menpe dauden aktiboen balioaren narriadura

Ekitaldi bakoitza ixteko egunean, Fundazioak bere ibilgetuaren kontabilitate-balio garbia zehazten du, aktiboen balioan narriadurak eragindako galerarik dagoen ikusteko. Azterketa horren ondorioz, ondasunaren balio gauzagarria kontabilitate-balio garbia baino txikiagoa dela ikusiz gero, galdu-irabazien kontuko «Ibilgetua besterentzeagatiko narriadura eta emaitza» epigrafean erregistratu behar da narriadurak eragindako balio-galera hori, ondasunaren kontabilitate-balio garbia murriztuz eta balio gauzagarriaren parean jarritz. Ondarearen balio gauzagarria merkatuko gauzatze-balioaren eta erabilera-balioaren arteko handiena izaten da. Erabilera-balioa finkatzeko, kutxa-fluxu estimatuak kenduz balio eguneratua zehazten da, arrazoizko interes-tasak erabiliz.

d) Finantza-tresnak

Finantza-aktiboak

Fundazioak balioztapen-kategoriaren arabera sailkatzen ditu bere finantza-aktiboak, negozio-eredua eta kontratuzko kutxa-fluxuen ezaugarriak oinarri hartuta, eta finantza-aktibo horiek kudeatzeko bere negozio-eredua aldatzen duenean soilik birsailkatzen ditu.

Inbertsioen eskuratzeko eta besterentzeak negoziazio-egunean kontabilizatzen dira, hau da, Fundazioak aktiboa erosi edo saltzeko konpromisoa hartzen duen egunean. Honela sailkatzen dira finantza-aktiboak:

Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan

Kategoria horretan sartzen dira finantza-aktiboak, baita merkatu antolatu batean negoziatzeko onartuta daudenean ere, betiere inbertsioa mantentzen bada eskudiru-fluxuak (ordaindu gabeko printzipalaren gaineko printzipalaren eta interesen kobrantzak) jasotzeko helburuarekin (eragiketa % 0ko eta merkatukoaz azpiko interes-tasarekin adosten bada ere).

Aktiboek helburu hori betetzen dutela jotzen da, nahiz eta salmentak egin diren edo etorkizunean egingo direla espero den. Horretarako, aurreko ekitaldietako salmenten maiztasuna, zenbatekoa, egutegia eta arrazoiak hartuko dira kontuan, bai eta etorkizuneko salmenten aurreikuspenak ere.

Oro har, kategoria honetan sartzen dira eragiketa komertzialen eta ez-komertzialen kredituak.

Hasieran, arrazoizko balioaren arabera balioztatzen dira. Kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezio bera da, hain zuzen ere emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean esleitu daitezkeen transakzio-kostua.

Eragiketa komertzialetarako kredituen eta beste partida batzuen kasuan —hala nola urtebetetik gorako epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten aurrerakinak, langileentzako kredituak edo kobratu beharreko dibidenduak—, balio nominalaren arabera balioztatzen dira, baldin eta eskudiruaren fluxuak ez eguneratzearen eragina txikia bada, bai hasierako kontabilizazioan, bai ondorengo balioztapenean, salbu eta narriadura badago.

Aktibo horien ondorengo balioztapena haien kostu amortizatuaren arabera egiten da, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta galdu-irabazien kontuan sortutako interesak kontabilizatuz.

Narriadura dagoela esaten da zordunaren kaudimengabeziak eragin ditzakeen etorkizuneko eskudiru-fluxu zenbatetsiak murriztu edo atzeratzen direnean.

Narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak, eta, dagokionean, itzultzea, ekitaldi-itxieran egiten dira, galdu-irabazien kontuan gastu bat edo diru-sarrera bat kontabilizatuz, hurrenez hurren. Hala ere, galera itzultzeak muga hau du: balio-narriaduraren ondoriozko galera erregistratu izan ez balitz aktiboek izango zuketena kostu amortizatua.

Ondare garbian aldatetak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan

Ondare-tresnak kategoria honetakoak izango dira baldin eta Fundazioak haien aldeko aukera ezeztatzina egin badu kategoria honetan kontabilizatzeko hasierako kontabilizazioan. Haien arrazoizko balioa hartzen da kontuan; arrazoizko balioan izandako aldatetek eragiten dituzten igoerak edo beherakadak Ondare garbian kontabilizatzen dira. Dena den, balioa narriatzearen ondoriozko balio-zuzenketak eta inbertsio horien dibidenduak aldiko emaitzan kontabilizatuko dira. Salmentaren unean, irabaziak edo galerak galdu-irabazien kontuan birsailkatzen dira.

Arrazoizko balioan balioztatutakoak arrazoizko balio-hierarkia erabiliz sailkatzen dira, balioztapenak egiteko erabilitako aldagaien garrantziaren arabera, «Arrazoizko balioa zehaztea» atalean zehaztutako arrazoizko balio-hierarkiarekin bat.

Finantza-aktiboetatik jasotako interesak eta dibidenduak

Eskuratu ondoren sortutako finantza-aktiboen interesak eta dibidenduak sarrera gisa kontabilizatzen dira galdu-irabazien kontuan. Kostu amortizatuaren balioztatutako finantza-aktiboen interesak interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz kontabilizatzen dira, eta dibidenduak hura jasotzeko eskubidea aitortzen denean.

Ondore horietarako, finantza-aktiboen hasierako balioztapenean modu independentean erregistratzen dira, kontuan hartuta epemuga, sortutako eta mugaeguneratu gabeko interes esplizituen zenbatekoa eta eskuratzeko unean adostutako dibidenduak.

Era berean, banatutako dibidenduak eskuratze-data baino lehen sortutako emaitzetatik datozenean, partaidetuak eskurapen-datatik sortutako irabaziak baino zenbateko handiagoak banatu direlako, ez dira sarrreratzat kontabilizatzen eta inbertsioaren kontabilitate-balioa gutxitzen dute.

Finantza-aktiboen baja

Finantza-aktiboei baja emango zaie finantza-aktiboaren eskudiru-fluxuen gaineko kontratu-eskubideak iraungitzen direnean edo transferitzen direnean, eta haien titulartasunaren ondoriozko arriskuak eta onurak eskualdatu egingo dira.

Finantza-aktibo bati baja ematen zaionean, honela zehazten da sortutako irabazia edo galera (eta ekitaldiko emaitzaren parte izango da): transakzio-kostu egozgarrietatik jasotako kontraprestazio garbiaren eta finantza-aktiboaren kontabilitate-balioaren arteko aldea, gehi zuzenean ondare garbian kontabilizatutako zenbateko metatua.

Finantza-pasiboak

Finantza-pasibo gisa erregistratzen dira jaulkitako, egindako edo onartutako tresnak, Fundazioarentzat kontratuzko betebeharrak zuzena edo zeharkakoa sortzen dutenak, haren errealitate ekonomikoa kontuan hartuta, eskudirua edo beste finantza-aktibo bat emateko edo hirugarrenekin finantza-aktiboak edo -pasiboak baldintza txarretan trukatzeko.

Honela sailkatzen dira finantza-pasiboak:

Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan

Eragiketa komertzialengatiko eta ez-komertzialengatiko zordunketei dagozkie.

Arrazoizko balioaren hasierako kontabilizazioa egin ondoren (transakzioaren prezioa zuzenean egozteko moduko kostuekin doitu), kostu amortizatuaren arabera balioztatzen dira, eta interesak galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuz.

Urtebete baino gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten eragiketa komertzialengatiko zordunketen kasuan, bai eta epe laburrean ordaintzea espero den zenbatekoa duten partaidetzei buruz hirugarrenen eskatzen dituzten ordainketen kasuan ere, hasierako eta ondorengo balioztapena balio nominalaren arabera egiten da, esku-diruaren fluxuak ez eguneratzearen efektua esanguratsua ez denean.

Finantza-pasiboen baja

Finantza-pasiboek baja ematen zaie, osotasunean edo zati batean, horiei dagokien betebeharrak iraungitzen denean. Eskuratutako finantza-pasibo propioei ere baja emango zaie, etorkizunean berriz ezartzeko asmoa izan arren.

Baldintza guztiz desberdinak dituzten zor-tresnak trukatzek badira, jatorrizko pasiboaren baja erregistratu eta pasibo berria kontabilizatuko da.

Finantza-pasiboaren kontabilitate-balioaren edo baja eman zaion haren zatiaren eta ordaindutako kontraprestazioaren arteko aldea, transakzio-kostu egozgarriak barne, eta hartutako eskudirua edo pasiboa ez den beste edozein aktibo lagata jasotzen duena, gertatzen den ekitaldiko galdu-irabazien kontuan kontabilizatuko da.

Baldintza oso desberdinak ez dituzten zor-tresnak trukatzek gero, jatorrizko pasiboari ez zaio balantzean baja emango eta ordaindutako komisioak kontabilitate-balioaren doikuntza gisa erregistratuko dira.

f) Eskudirua eta bestelako bitarteko likido baliokideak

Eskudirua kuxak eta ageriko banku-gordailuek osatzen dute, eta eskudiruaren baliokideak, berriz, epe laburreko eta likidezia handiko inbertsioei dagozkie; inbertsio horiek erraz bihurtzeko eskudiru-zenbateko jakin batzuk, eta balio-aldaketan arrisku txikiari lotuta daude.

g) Partida korronteak eta ez-korronteak

Egoera-balantze laburtuan saldoak korronteen eta ez-korronteen artean daude sailkatuta. Fundazioak ustiapen-ziklo normalean saldu, kontsumitu, ordaindu edo gauzatzeari espero dituenak dira saldo korronteak. Sailkapen horrekin bat ez datozen saldoak, berriz, ez-korronteak dira.

h) Dirulaguntzak

Fundazioak irizpide hauek erabiltzen ditu eman dizkieten dirulaguntzak kontabilizatzeko:

- **Ustiapeneko dirulaguntza generikoak:** Fundazioak egiten dituen proiektuekin lotura zuzena ez duten dirulaguntzak dira. Eman ostean, emaitzetan ordaintzen dira, Fundazioak erabakitzen duenean bertan ezarritako baldintzak bete direla eta, beraz, ez dagoela kobratzeko arrazoizko zalantzarik. Bestalde, emaitzetan egozten dira, epealdi bakoitzean dirulaguntzaren ondoriozko sarreraren eta diruz lagundutako gastuen artean kontabilitate-korrelazio egokia dagoela bermatzeko.
- **Proiektu jakinetarako ustiapeneko dirulaguntzak:** Proiektu jakin baterako ematen diren dirulaguntzak dira. Halakoetan, Fundazioak proiektuaren gastuak sortu ahala egozten ditu sarrerak emaitzetan, dirulaguntzaren ondoriozko sarreraren eta diruz lagundutako gastuen artean kontabilitate-korrelazio egokiari eusteko asmoz. Proiektuen burutze-maila txikiagoa bada dirulaguntzaren bidez lortutako sarrerak baino, Fundazioak periodifikatu egiten ditu sarrerak.

Dirulaguntza itzulgarriak pasibo gisa erregistratzen dira, ez-itzulgarri bihurtu arte.

i) Mozkinen gaineko zerga

2004ko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak arautzen du Fundazioa, irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoak.

Horrenbestez, ez du helburu soziala osatzen duten jardueretatik lortutako emaitzengatik sozietateen gaineko zerga zertan ordaindu, ez eta erakundearen ondare higigarri eta higiezinaren ondoriozkoengatik ere.

j) Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak dagozkien ondasun eta zerbitzuen korrante errealearen arabera egozten dira, beraietatik datorren diru- edo finantza-korrontea noiz gertatu den kontuan hartu gabe.

Dena den, zuhurtasun-printzipioari jarraikiz, ekitaldia itxi den egunean lortutako mozkinak bakarrik kontabilizatzen ditu Fundazioak. Aurreikusteko modukoak diren arriskuak eta galerak, berriz, horien berri izan bezain laster kontabilizatzen ditu, nahiz eta behin-behinekoak izan.

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

12

Hona hemen Fundazioaren sarrera-iturri nagusiak:

- Administrazio publikoen dirulaguntzak. AVCD-GLEA (Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia), AECID (Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia), Nafarroako Foru Gobernua, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia dira garrantzitsuenak.
- Kooperatibak, batez ere Mondragonen ingurukoak.
- La Caixa Fundazioaren dohaintzak.
- GKE-en dohaintzak.
- Partikularren dohaintzak.

Gastuen partidan, Fundazioaren dirulaguntzek osatzen dute zatirik garrantzitsuenak. Kontu horretan sartzen dira Fundazioak askotariko proiektuak finantzatzeko eta laguntzeko egiten dituen gastuak: elkar-lankidetzako proiektuak, eskualde-garapenerako programak eta antolamendu sozioekonomikoa indartzea xede dutenak.

k) Pertsonal-gastuak

Langileen ordainsariak epe laburrekoak izan daitezke, kargu-uztearen ondoriozko kalte-ordainak, epe labur eta luzeko bestelako ordainsariak.

Epe laburreko ordainsariak. Langileek emandako zerbitzuen arabera kontabilizatzen dira, sortzapena kontuan hartuta.

Kargu-uztearen ondoriozko kalte-ordainak. Kargu-uztearen ondoriozko kalte-ordainak pasibo eta gastu gisa kontabilizatzen dira langilearen erretiro-data normala baino lehen lan-lotura desagiteko konpromiso frogagarria dagoenean, edo kontratuak borondatez hutsaltzea sustatzeko eskaintza dagoenean.


Epe labur eta luzeko pizgarriei dagozkien ordainsariak. Fundazioak irabazietan parte-hartzearen edo langileentzako pizgarri-planen aurreikusitako kostua kontabilizatzen du iraganeko gertaeren ondorioz egungo betebeharra, legekoa edo inplizitua dagoenean eta betebeharraren balioaren zenbatespen fidagarria egin daitekeenean.

l) Ingurumenean eragiten duten enpresa-jarduerak

Ingurumen-izaera duten aktibotzat jotzen dira Fundazioaren jardueran modu iraunkorrean erabiltzen diren ondasunak, betiere ingurumen-inpaktua txikitzeko eta ingurumena babestu eta hobetzeko helburua badute, etorkizuneko kutsadura murriztu edo deuseztatzea barne harturik. Egoera-balantzeko «Ibilgetu materiala» epigrafean kontabilizatzen dira.

Ondore horietarako, 4.c oharrean azaltzen diren balioztapen-arauak kontuan hartuta erregistratuko dira aktiboak, erosketa-prezioaren edo produkzio-kostuaren zehaztapena, amortizazio-irizpideak eta egin beharreko balio-zuzenketak.

Ingurumen-gastuak galdu-irabazien kontuan egozten dira, sortzapen-irizpidearen arabera, beraietatik datorren diru- edo finantza-korrontea noiz gertatu den kontuan hartu gabe. Ingurumen-gastu horien barruan sartzen dira: Fundazioaren eragiketen ingurumen-ondorioen kudeaketa, horien prebentzioa eta/edo hondakinen eta isurtzeen tratamendua.



5. OHARRA. IBILGETU UKIEZINA

Ibilgetu ukiezinak ez du mugimendurik izan 2021eko eta 2020ko ekitaldietan, eta honela dago osatuta, eurotan:

KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
KOSTUA:	
Informatika-aplikazioak	15.930
Kostua guztira	15.930
AMORTIZAZIO METATUA:	
Informatika-aplikazioak	(15.930)
Amortizazioa guztira	(15.930)
BALIO GARBIA	-

6. OHARRA. IBILGETU MATERIALA

2021eko eta 2020ko ekitaldietan haxe izan da Fundazioaren ibilgetu materialeko kontuen kontabilitate-mugimendua, eurotan:

KONTZEPTUA	2019-12-31	Gehikuntzak	2020-12-31	Gehikuntzak	2021-12-31
KOSTUA:					
Altzariak	3.316	-	3.316	-	3.316
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	1.129	-	1.129	-	1.129
Kostua guztira	4.445	-	4.445	-	4.445
AMORTIZAZIO METATUA:					
Altzariak	(1.216)	(332)	(1.548)	(332)	(1.880)
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	(1.129)	-	(1.129)	-	(1.129)
Amortizazioa guztira	(2.345)	(332)	(2.677)	(332)	(3.008)
BALIO GARBIA	2.100	(332)	1.768	(332)	1.437

Fundazioak Arrasateko Iturriotz kalearen 27.ean gauzatzen du bere jarduera. Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditorena da lokal hori. 2020ko urriaren 19an, iraupenik gabeko prekarioko kontratu bat sinatu zuten bi aldeek.

Erantsitako egoera-balantzearen epigrafe horretan, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n erabat amortizatuta eta oraindik erabilgarri dauden elementuak sartu dira. Hurrengo taulan azaltzen da beraien amortizazio metatua:

KONTZEPTUA	2021	2020
Altzariak	-	-
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	1.129	1.129
Guztira	1.129	1.129

7. OHARRA. FINANTZA-AKTIBOAK ETA -PASIBOAK KATEGORIEN ARABERA

Finantza-aktiboak

Hauxe da finantza-aktiboen sailkapena kategorien eta moten arabera eurotan:

Motak Kategoriak	Epe luzeko finantza-aktiboak					
	Ondare-tresnak		Kredituak, deribatuak eta beste batzuk		Guztira	
	2021	2020	2021	2020	2021	2020
Ondare garbian aldatetak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	2.345	2.345	-	-	2.345	2.345
A guztira	2.345	2.345	-	-	2.345	2.345

Motak Kategoriak	Epe laburreko finantza-aktiboak					
	Ondare-tresnak		Kredituak, deribatuak eta beste batzuk		Guztira	
	2021	2020	2021	2020	2021	2020
Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan	-	-	516.239	312.978	516.239	312.978
B guztira	-	-	516.239	312.978	516.239	312.978

A+B guztira	2.345	2.345	516.239	312.978	518.584	315.323
--------------------	--------------	--------------	----------------	----------------	----------------	----------------

Finantza-pasiboak

Hauxe da finantza-pasiboen sailkapena, kategorien eta moten arabera, eurotan:

Motak Kategoriak	Epe laburreko finantza-pasiboak					
	Kreditu-erakundeekiko zorrak		Deribatuak eta beste batzuk		Guztira	
	2021	2020	2021	2020	2021	2020
Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan edo kostua	7.109	7.015	58.354	51.499	65.463	58.514
Guztira	7.109	7.015	58.354	51.499	65.463	58.514

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

15

Galdu-irabazien kontuarekin eta ondare garbiarekin lotutako informazioa

2021eko eta 2020ko ekitaldietan, haxe da, eurotan, galdu-irabazien kontuarekin eta finantza-tresnen ondare garbiarekin lotutako informazioa:

KONTUA	2021-12-31		2020-12-31	
	Finantza-tresnak amortizatutako kostuan	Ondare garbian aldatetak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan	Finantza-tresnak amortizatutako kostuan	Ondare garbian aldatetak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan
Finantza-aktiboak				
Finantza-sarrerak	-	-	-	-
FINANTZA-SARRERAK	-	-	-	-
Finantza-pasiboak				
Finantza-gastuak	(3.470)	-	(3.140)	-
FINANTZA-GASTUAK	(3.470)	-	(3.140)	-
KANBIO-ALDEAK	49	-	(72)	-

8. OHARRA. EPE LUZEKO FINANTZA-INBERTSIOAK

Sozietateak «Ondare garbian aldatetak dituzten finantza-aktiboak arrazoizko balioan» kategorian sailkatu dituen ondare-tresnek osatzen dute egoera-balantze laburtuko epe luze finantza-inbertsioen atala.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, haxe da ondare-tresnen xehetasuna, eurotan:

PARTAIDETZAPEKOA	2021-12-31	2020-12-31
Fiare Banka Etikoa	633	633
Osarten S. Coop.	1.712	1.712
Guztira	2.345	2.345

Fundazioak partaidetza minoritarioa du sozietate horietan.

9. OHARRA. ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRATZEKO BESTELAKO KONTUAK

Hona hemen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n zordun komertzialek eta kobratu beharreko beste kontu batzuek zuten xehetasuna, eurotan:

KONTZEPTUA	2021-12-31	2020-12-31
Finantza-aktiboak amortizatutako kostuan		
Bezeroak salmentengatik eta emandako zerbitzuengatik		-
Hainbat zordun	514.295	312.799
Langileak	1.944	179
Administrazio publikoekiko saldoak:		
Administrazio publikoekiko bestelako maileguak	464.437	870.380
Guztira	980.676	1.183.358

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, administrazio publikoekiko saldo zorduna kontzeptu eta zenbateko hauei dagokie:

KONTZEPTUA	2021-12-31	2020-12-31
Emandako dirulaguntzak	464.437	870.380
Guztira	464.437	870.380

Hauxe da, eurotan, emandako dirulaguntzetatik kobratzeko dauden zenbatekoen xehetasuna, proiektuen arabera banakatuta:

PROIEKTUA	2021-12-31	2020-12-31
2018 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) M205 Kolonia Coemprender	-	76.657
2018 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) K197 K2 Brasil hegoaldea	-	356.944
2019 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) A M212 Gehikoop	-	82.175
2020 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) K224 Brasil Ceará	177.302	354.604
2021 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) M250 Kolonia Birziklatzaileak	213.793	-
2021 Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA) M257 Brasil Ceará	48.414	-
2021 Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA) M260 Gehikoop	24.928	-
Guztira	464.437	870.380

10. OHARRA. ESKUDIRUA ETA BESTELAKO AKTIBO LIKIDO BALIOKIDEAK

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, kutxa eta bankuetako saldoek osatzen dute egoera-balantzeko «Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak» epigrafe osoa.

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

17

11. OHARRA. FUNTS PROPIOAK

Funts propioek ez dute mugimendurik izan 2021eko eta 2020ko ekitaldietan, eta honela daude osatuta, eurotan:

KONTZEPTUA	Saldoa
Fundazioko ondarea	6.371
Borondatezko erreserbak	1.131.356
Galdu-irabaziak	-
Guztira	1.137.727

«Borondatezko erreserbak» erabilera askekoak dira.

12. OHARRA. JASOTAKO DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, «Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak» atalean sartu dira egin gabe dauden proiektuentzat jasotako dirulaguntzengatik sarrerak eta Fundazioak metatutako defizita edo superabita; hauxe da xehetasuna, eurotan:

2021eko ekitaldiko mugimendua

PROIEKTUA	2020-12-31	Altak	Bajak	2021-12-31
Proiektu jakinetarako jasotako dirulaguntzak	2.139.073	2.132.917	(1.216.297)	3.055.693
Defizita estaltzeko hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak (1. eta 3. oharrek)	914.388	-	(19.817)	894.571
Guztira	3.053.461	2.132.917	(1.236.114)	3.950.264

2020ko ekitaldiko mugimendua

PROIEKTUA	2019-12-31	Altak	Bajak	2020-12-31
Proiektu jakinetarako jasotako dirulaguntzak	1.440.814	1.463.132	(764.873)	2.139.073
Defizita estaltzeko hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak (1. eta 3. oharrek)	840.537	73.851	-	914.388
Guztira	2.281.351	1.536.983	(764.873)	3.053.461

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

18

Hauxe da proiektu jakinetarako jasotako dirulaguntzen xehetasuna 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, eurotan:

PROIEKTUA	2021-12-31	2020-12-31
ERAKUNDE PUBLIKOAK:		
2017 Bizkaiko Foru Aldundia (BFA) K177 Brasil hegoaldea	-	8.727
2018 Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID) M199 Cabo Delgado	113.465	285.013
2018 Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA) K194 Brasil hegoaldea	-	27.852
2018 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) K197 K2 Brasil hegoaldea	111.379	257.243
2018 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) M2015 Kolonia Coemprander	-	64.241
2019 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) M212 Gehikoop	26.938	138.890
2020-2021-2022-2023 ARRASATEKO UDALA M222 Mozambique	30.000	45.000
2020 Nafarroako Foru Gobernua (NFG) M235 Niassa	-	82.196
2020 Bizkaiko Foru Aldundia (BFA) K226 Brasil Ceará	78.476	120.000
2020 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) K224 Brasil Ceará	285.122	443.255
2020 Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID) M239 Etiopia	250.435	298.287
2020 Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID) M229 Kolonia nekazaritza	210.826	298.803
2021 Nafarroako Foru Gobernua (NFG) M256 Niassa	92.286	-
2021 Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA) M250 Kolonia Birziklatzaileak	285.057	-
2021 Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID) M262 Mozambique	357.635	-
2021 Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID) INNO K261 Brasil	418.622	-
2021 Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID) M263 Ekuador	359.878	-
2021 Bizkaiko Foru Aldundia (BFA) K253 Brasil	114.057	-
2021 Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA) K257 Brasil Ceará	98.905	-
2021 Gipuzkoako Foru Aldundia (DFG-GFA) M260 Gehikoop	49.857	-
Erakunde publikoak guztira	2.882.938	2.069.507
ERAKUNDE PRIBATUAK:		
2018 HARREMAN M204 Mozambique	-	14.271
2019 MUNDUZABAL M218 Namuno	-	5.000
2019 HARREMAN M221 Mozambique	-	25.227
2020 HARREMAN M244 Niassa	24.121	25.068
2020 La Caixa W4P M238 Mozambique	114.084	-
2021 HARREMAN M271 Mozambique	21.403	-
2021 RIOJA ALTA M249 Etiopia	13.147	-
Erakunde pribatuak guztira	172.755	69.566
Proiektuetarako jasotako dirulaguntzak guztira	3.055.693	2.139.073

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

19

13. OHARRA. EPE LABURREKO ZORRAK

Hauxe da egoera-balantze laburtuko partida honen osaera, eurotan, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n:

KONTZEPTUA	2021-12-31	2020-12-31
<u>Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan</u>		
Kreditu-erakundeekiko zorrak (Visa)	7.109	7.015
Beste finantza-pasibo batzuk	220	189
Guztira	7.329	7.204

14. OHARRA. HARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINDU BEHARREKO BESTELAKO KONTUAK

Hona hemen egoera-balantze laburtuko kapitulu honek 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n duen osaera, eurotan:

KONTZEPTUA	2021-12-31	2020-12-31
<u>Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan</u>		
Hornitzaileak	20.234	10.594
Hainbat hartzekodun	166	1.067
Ordaintzeko dauden ordainsariak	37.734	39.649
<u>Administrazio publikoekiko saldoak</u>		
Administrazio publikoekiko bestelako zorrak	49.297	38.773
Guztira	107.431	90.083

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, administrazio publikoekiko saldo hartzekodunak kontzeptu hauei dagozkie:

KONTZEPTUA	2021	2020
Ogasun publikoa, BEZagatik hartzekodun	1.178	1.855
Ogasun publikoa, PFEZgatik hartzekodun	28.339	20.643
Gizarte Segurantzaren erakundeak	19.780	16.275
Guztira	49.297	38.773

15. OHARRA. SARRERAK ETA GASTUAK

a) Bazkide eta afiliatuen kuotak

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan, hauxe da elkarte eta afiliatuen kuoten xehetasuna, eurotan:

KONTZEPTUA	2021	2020
Partikularren ekarpenak	98.039	105.316
Guztira	98.039	105.316

b) Sustapenetatik eta babesle eta kolaboratzaileengandik etorritako sarrerak

Hona hemen sustapenetatik eta babesle eta kolaboratzaileengandik etorritako sarreren xehetasuna 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan, eurotan:

KONTZEPTUA	2021	2020
Kooperatiben ekarpenak	557.346	665.312
Guztira	557.346	665.312

Hona hemen 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n ekarpenak egin dituzten kooperatiben xehetasuna, eurotan:

KONTZEPTUA	2021	2020
Mondragon Fundazioa	143.000	165.000
Fagor Taldea	97.665	155.706
Orkli S. Coop.	75.023	67.848
Danobat Taldea	47.666	-
Ulma Taldea	30.579	43.744
Orona Fundazioa	30.000	35.000
LABORAL Kutxa	27.026	14.491
Maier S. Coop.	15.000	15.000
Irizar S. Coop.	-	30.000
Mondragon Inversiones	14.375	37.946
Beste kooperatiba batzuk	77.012	100.577
Guztira	557.346	665.312

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

c) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n haxe da dirulaguntzen, dohaintzen eta legatuen xehetasuna, eurotan:

KONTZEPTUA	2021	2020
ERAKUNDE PUBLIKOAK:		
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia (AVCD-GLEA)	416.329	247.487
Garapenerako Nazioarteko Lankidetzarako Espainiako Agentzia (AECID)	307.377	43.103
Nafarroako Gobernua (NFG)	91.215	77.620
Bizkaiko Foru Aldundia (BFA)	50.251	19.836
Gipuzkoako Foru Aldundia (GFA)	27.852	46.574
Arrasateko Udala	15.000	15.000
Aramaioko Udala	-	300
Erakunde publikoak guztira	908.024	449.920
ERAKUNDE PRIBATUAK:		
La Caixa Fundazioa	64.426	101.347
Harreman	48.862	12.423
Munduzabal elkarte	22.600	53.000
Rioja Alta	18.783	-
Eroski S. Coop.	17.000	17.000
Hirugarren munduko Hiruatx elkarte	8.000	8.500
RSE Zabala	-	3.000
Erakunde pribatuak guztira	179.671	247.499
Guztira	1.087.695	697.419

Fundazioaren Patronatuko kideon ustez, bete egin ditugu jasotako dirulaguntzei, dohaintzei eta legatuei lotutako baldintzak.

d) Laguntza monetarioak

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n haxe da laguntza monetarioen xehetasuna, eurotan:

KONTZEPTUA	2021	2020
Garapen-proiektuak	765.413	491.541
Etorkizuneko ekitaldietan aplikatzekoak	-	73.851
Guztira	765.413	565.392

e) Laguntza ez-monetarioak

Hona hemen laguntza ez-monetarioen xehetasuna 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, eurotan:

KONTZEPTUA	2021	2020
Prestakuntza	2.699	1.916
Bidaia-gastuak	49.748	37.501
Guztira	52.447	39.417

f) Pertsonal-gastuak

Hona hemen galdu-irabazien kontu laburtuko «Pertsonal-gastuak» partidaren xehetasuna, eurotan:

KONTZEPTUA	2021	2020
Soldadak eta ordainsariak	597.847	570.575
Kalte-ordainak	14	16.501
Gizarte-segurantzak	182.733	184.436
Bestelako gastu sozialak	9.846	5.792
Guztira	790.440	777.304

2021eko ekitaldian, batez beste 19 langile egon dira lanaldi osoko dedikazioan; hona hemen horien sailkapena:

Kategoria	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Zuzendaria	1	-	1
Koordinatzailea / Gestorea	11	5	16
Teknikariak	1	1	2
Guztira	13	6	19

2020ko ekitaldian, batez beste 20 langile egon dira lanaldi osoko dedikazioan; hona hemen horien sailkapena:

Kategoria	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Zuzendaria	1	-	1
Koordinatzailea / Gestorea	12	3	15
Teknikariak	1	3	4
Guztira	14	6	20

g) Jarduerako bestelako gastuak

Hauxe da galdu-irabazien kontu laburtuko «Beste ustiapen-gastu batzuk» partidaren xehetasuna, eurotan:

KONTZEPTUA	2021	2020
Konponketak eta zaintza-lanak	2.402	1.853
Profesional independenteen zerbitzuak	90.624	53.705
Garraioak	-	812
Aseguru-primak	37.385	28.153
Banku-zerbitzuak	97	117
Publizitatea eta propaganda	51.277	40.547
Hornidurak	8.364	11.396
Beste zerbitzu batzuk	51.802	24.239
Zergak	3.196	571
Guztira	245.147	161.393

16. OHARRA. ENTITATEAREN JARDUERA. ONDARE-ELEMENTUAK NORBERAREN HELBURUETARAKO ERABILTZEA. ADMINISTRAZIO-GASTUAK

16.1. Erakundearen jardura
a) Egindako jarduerak
➤ Helburu orokorra

Jardueraren izena	Hegoaldeko herrialdeekin lankidetzan aritzea eta esperientziak, baliabideak eta ezagutza metatua partekatzea. Horretarako, kooperatiben elkartasuna aktibatzen du, inplikaturako alderdien garapen autogestionatu eta integrala sustatzeko.
Jardura-mota	Norberaren jardura
Jardura sektorearen arabera identifikatzea	Prestakuntza, kooperatibentzako laguntza, jardura berriak sortzeko laguntza, ureztatze-sistemak, merkaturatzeko laguntza eta nekazaritza sustatzea.
Jardura egin den lekua	Mozambique, Etiopia, Brasil, Kolonia eta Ekuador.

➤ *Deskribapen zehatza*

COVID-19ak asko baldintzatu du 2021ean gure programetan gauzatutako jarduerak. Pandemiak herrialde bakoitzean sortu dituen baldintzetara moldatu behar izan gara, geure helburuari eusteko: ahalik eta pertsona gehienei laguntzea, bizitza hobe bat bilatzen eta, horrela, gizarte bidezko eta jasangarriago baterantz jotzen. Halere, programa bakoitzean gertatutakoaren alderdirik nabarmengarrien laburpenean ikusiko dugunez, pandemia arazo bat gehiago da pertsona askorentzat, indarkeria, eskasia eta injustizien zerrenda luzeari batu zaien arazo bat.

1. MOZAMBIKE

2021eko irailaren 24an argitaratu zituzten Mozambikeko familia-aurrekontuari buruzko inkestaren emaitzak. Estatistikako Institutu Nazionalak 5 urtean behin egiten du inkesta. Azken emaitzen arabera, Mozambikeko batez besteko familien aurrekontua % 28 txikitu da azken 5 urteotan; hala, familiek 2020an izan duten hileko aurrekontua 2009koa baino txikiagoa izan da. Ondorioz, herrialdeko biztanleen % 75 egunean 1 \$ baino gutxiagorekin bizi da, eta % 90 —27 milioi lagun— egunean 1,90 \$ baino gutxiagorekin. Munduko Bankuak ezarritako pobrezia-atalasearen azpitik, beraz.

Egoera horren aurrean, nekazarien ekoizpen- eta merkataritza-jarduerak modu jarraituan, jasangarrian eta errentagarrian handitzea da helburu estrategikoa. Bide horretan, 2021ean Cabo Delgadoko gatazkak baldintzatu egin du programaren garapena. Probintzia horretan, Mozambikeko gobernua eta nazioarteko indar armatuak matxino yihadisten aurka ari dira borrokan 4 urtez baino gehiagoz. Gatazkak desplazatu ugari eragin ditu, eta probintzia barruan pertsona-taldeak desplazamendua baldintzatu du. Horrenbestez, zaila izan da emaitza onak ekarri dituen programaren metodologia martxan jartzea.

Egoera hori dela eta, aldatu egin behar izan dugu hasierako asmoa, eta Cabo Delgado probintzian jarrera kontserbadorea hartu dugu, orain arte lortutakoa sendotzeko helburuarekin. Niassako probintzian, berriz, haztea eta programaren eragina hedatzea da helburua, bai lehendik lanean ari garen lekuetan eta bai beste barruti batzuk irekiz.

Era berean, erakunde finantzatzaileekin malgutasun handiagoa negoziatu ahal izan dugu eremu horretan, jarduerak eraginik handiena izango duten lekuetan ezartzeko.

Horrenbestez, nabarmentzekoak dira:

- 1) Barruti berriak ireki ditugu Niassa probintzian: Lago, Sanga, Ngauma eta Mwembe. Marrupa, Majune eta Mandimba barrutiei gehitu zaizkie, eta, beraz, Niassako 7 barrutitan gaude orain. Cabo Delgadon, zailtasunak zailtasun, Balaman, Montepuezen eta Namunon jarraitzen dugu. Ondorioz, 10 barrutitara iritsi da Mozambikeren iparraldeko korridorean dugun presentzia.
- 2) Taldea. Bi kooperante berri eta tokiko 9 lagun ekarri ditugu Niassako bulego berrietara. Hala, 4 kooperantek eta tokiko 29 lagunek osatzen dute taldea. Produkzio-arduradunak, administrazio-arduradunak eta zaintzaileak dira.

- 3) **Produkzioa:** 2 produkzio-ildo landu dira. Batetik, laborerik finkatueneen kasuan —sesamoa eta barazkiak, adibidez— programak eskaintzen duen laguntza gero eta zeharkakoagoa da, sargaiak eskuratzea bermatzen du eta autogestioa sustatzen du. Bestetik, labore berrien edo horren finkatuta ez daudenen kasuan —guandua, mungoa, babarrun arrunta, soja—, laguntza zuzenagoa eskaintzen da: laguntza tekniko (nekazariz nekazari metodologia), sargaien eskuragarritasuna lortzea eta merkaturatzea bideratzea. Horretarako, nekazaritza-produkzio dibertsifikatua, errentagarria, jasagarria eta autogestionatua sustatzen da.
- 4) **Merkaturatze-sarea.** Cabo Delgadon, tokiko merkatariekin lanean jarraitzen dugu, herrixketan nekazaritzako sargaien (hazien, ongarrien eta abarren) erabilera errazteko.

2. ETIOPIA

Herrialdeko gatazka armatuak (Tigrayko gerrak) markatu du urtea. Larrialdi-egoera ezarrita, horrek erabat baldintzatu zuen programatutako egutegia normaltasunez aurrera eramatea. Hala ere, proiektua Asella herrian finkatzea lortu zen, eta tokiko taldea osatu zen bertan. Arreta berezia eskaini zaie inguruko nekazarietako zuzeneko harremanari eta jarduerak bertatik bertara egiteko gobernuaren onespenerari.

Nekazari-familiaren nekazaritzako produkzioa eta produktibitatea hobetzea da programaren helburua. Horretarako, trebakuntza, laboreen dibertsifikazioa, erabilera bikoitzeko (elikatzeko eta salerosketarako) laboreetan nekazaritzako jardunbide egokiak ezartzea eta nekazaritzako sargaiak eta kredituak eskuragarri egitea proposatzen du.

Helburua lortzeko, sasoi bakoitzerako nekazaritza-jarduerak bideratu ziren. Euri-sasoi laburrean (*Belg* delakoan) 100 emakumetik gora bildu ziren 6 barrutitan frutikultura sustatzeko, fruta-arbolen baratzak sortuta. Hala, merkataritza-balio handiko 5.500 fruta-arbola landatu ziren. Tamalez, euri-sasoiko (*Maier*) jarduerak atzeratu egin behar izan ziren gatazka armatuaren ondorioz. Azkenik, sasoi lehorrean, etxeko hegazti-hazkuntza sustatu da programaren bidez, eta 60 familiaren artean eskala txikiko oiloen hazkuntza bideratu da.

3. BRASIL

Helburu hau du programak: finkatutako eta kanpatutako familien garapen sozioekonomikoa bultzatzea, nekazaritza-erreformako kooperatiben kudeaketa hobetuz eta pertsonal teknikoa trebatuz.

COVID-19aren krisiak programaren garapena baldintzatu du 2021ean ere. Urtearen lehen erdian laguntzarik eta prestakuntzarik gehienak telematikoki eskaini dira. Urtearen bigarren erdian aurrez aurreko jarduerari heltzen hasi gara, bai laguntzetan eta bai prestakuntzetan, baina pandemia-aurreko normaltasunetik urrun, oraindik ere.

Aurreko urteetako lanei jarraipena eman diegu: Ceará, Rio Grande do Sul, Santa Catarina eta Paranako kooperatibei laguntzen jarraitu dugu Mugimenduarekin batera finkatu eta adostutako ereduaren bidez. MSTren merkaturatze-prozesuak laguntzeko jarduna indartze aldera, salmenta publikoko sistemak sendotu dira eta «Armazens do Campo» denda berriak ireki, Mundukideren parte-hartzearekin eraikitako denda-ereduari jarraikiz. Gainera, Hegoaldeko estatuetako jarraipen-taldeei laguntzen jarraitu dugu.

Azkenik, urteko lorpenen artean azpimarratzekoa da kooperatiben prestakuntzarako e-learning plataforma abian jarri dela, aurreikusita zegoenez. Instituto de Educação Josué de Castro (iejc.edu.br) ikastetxearekin batera egin da lan hori, eta, bertan, plataforma eta bertako edukia sortu dituzte.

4. KOLONBIA

Kolonbiako programak, herrialdearen hegoaldeko Nariño probintzian gauzatzen denak, bi lan-ildo ditu. Egoera politikoa dela eta, zaila izan da urtea. Landa-ingurunean indarkeria nabarmendu da eta indigenen erakundeek lanuzteak bultzatu dituzte. Horri guztiari pandemiaren ondorioak gehitu zaizkio.

Batetik, Pastoko birziklatzaileen erakundeak antolatzeke egin dugu lan, aprobetxamendu-zerbitzua (birziklatzekoa) eskaintzen duen erakunde bakarra sortzeko asmoarekin. Ildo horretan, urtebete eman dugu emakume lider egokien eta birziklapen-negozioa ezagutzen dutenen bila, Pastoko birziklatzaileen elkarteak sendotzeko. Trebatu beharreko emakume liderren taldean pertsonak eta erakundeak sartu eta irten dira. Zaila izan da horiek bateratzea, egoera ezegonkorak eta erakunde eta helburu ezberdinak medio. Aldi berean, alkatetzari hondakin solidoen gestio integralerako plana betetzea eskatu zaio, horretarako masa kritiko nahikoa lortu ondoren. Hala, aprobetxamendurako instalazio klasifikatzailea lortu da urtea amaitzerako, eta, bertan, langile talde bat hartu dute modu autogestionatuan lan egiteko. Birziklapenerako instalazioaren inguruan interes handia piztu da, eta 2022an aprobetxatuko delakoan gaude. Ekimenen bat ere eramango da aurrera Bogotako emakume birziklatzaileen elkartearekin batera.

Bestetik, proiektu bat jarri dugu abian Agromindalae erakundearekin, Pasto komunitateko emakume indigenen produktu tradizionalak sustatzeko. Proiektuaren hasiera zaila izan da Kolonbiako egoera politikoagatik eta lanuzteengatik. Hasi ondoren, argi geratu da proiektura aurkeztu diren taldeek asko sufritu dutela pandemiagatik, eta batzuk erabat desegituratu dira. Poliki-poliki eremu horretan sartzen ari gara, gutxi gorabehera antolatuta dauden talde berriak lortzeko. Nekazaritzako produkzio ekologikoaren metodologia hobetuz, gutxitu egiten dira produkzio-kostuak, eta horrek parte-hartzaileen interesa pizten du. Denbora behar da Mundukideko taldea bertan antolatzeke, eta energia asko bideratu da nekazaritza-ingurunean paradigma-aldaketa ulertarazteko, asistentzialismoan erori gabe.

5. EKUADOR

2021ean pandemiaren eragina aldizkakoa izan da Ekuadorreko eguneroko bizitzan, eta Mundukidek aukera izan du, oraingoan, identifikatutako eragileekin batera lanaren hasiera zehazteko.

Elkarlanerako ildoak zehaztu ziren Toisán korporazioarekin (Intag bailara, Cotacachi-Imbabura), 10 enpresa sozial txikiren merkaturatze-, enpresa- eta antolaketa-gaitasunak hobetzeko, horretarako sare-ikuspegia, berrikuntza, lehiakortasuna, ingurumenaren zaintza eta emakumeen eskubideak kontuan hartuta. Gainera, Intageko 65 nekazariren artean (63 emakume eta 2 gizon) arnasketa- eta immunologia-sistema indartzeko sendabelarren inguruko ezagutza partekatu eta sendotzeko eta horien ekoizpena sustatzeko egitasmo txiki bat gauzatu zen.

Lankidetzeta-hitzarmena sinatu zen egoitza Cuencan duen Herri Ekonomia Solidarioaren Goi Institutu Teknologikoarekin, gizarte-ekonomiako eragileak sendotzera bideratutako elkarlana aurrera eramateko.

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

Wiñak elkartearekin (Archidona-Napo-Amazoniako kichwa erakundearekin), bertatik bertara egin zen diagnostikoa eta 2022rako ekintza-plana.

6. MALAWI

Pandemiak eragindako egoera zaila tarteko, programaren hasiera berriro atzeratzea erabaki dugu, 2023ko bigarren erdira edo 2024ra.

7. GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA

GEHIKOOP (Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza Interkooperatiboa) 2019an jarri zen martxan, 2 errealiteren arteko zubiak eraikitze eta erronka komunei heltzeko proiektu pilotu gisa. Mundua globala den heinean, bertan sortzen diren erronkak ere globalak dira, eta, beraz, zergatik ez diegu erantzungo ezberdinak diren errealitateen arteko lankidetzaren bidez? Horretarako, 2 lan-ildo ditu proiektuak.

Batetik, gizarte-eraldaketaren ikuspegi globala txertatzea kooperatibetan. Hausnarketako eta trebakuntzako saioetan ARIZMENDI IKASTOLA, COPRECI, EDERLAN eta MAIEReko pertsonak hartu dute parte, eta Brasilgo MSTren 4 kooperatibarekin batera —COCAVI, COOPAN, COOPERUNIAO eta CAMINHOS do SABER— arlo tekniko espezifiko landu dute. Elkar ezagutzeko lehenengo bilerak online egin ziren, eta 2021eko azaroan 8 brasildarren bisita jaso dugu.

Bigarren lan-ildoa ere, Mondragon Unibertsitatearekin eta Arizmendi Ikastolarekin aritu gara lankidetzan, ikasleen irteera-profilean elkartasun unibertsaleko printzipioak eta balioak txertatzeko helburuarekin. Saioak egin ditugu MUko Goi Eskola Politeknikoko eta Enpresagintza fakultateko 20 ikasle-talderekin, eta 30 bat irakaslerekin lankidetzan aritu gara haiengana iritsi eta lana zehazteko. Arizmendi Ikastolan, oster, DBHko 1. eta 2. mailetako eta LHko 5. eta 6. mailetako ikasleentzako material pedagogikoa landu da.

8. ELKAR-LANKIDETZARAKO PROPOSAMEN BERRIAK

Mundukideren «I+Gko inbertsioztat» jotzen den ildo estrategiko horretan identifikatzen dira elkar-lankidetzarako proposamen berriak. Xedea argia da: jarduteko eskema eta modu berriak aurkitzea eta etorkizunean guretzat lagungarriak izan daitezkeen beste errealitate batzuetara hurbiltzea.

2021ean, ekimen hauetan egin dugu lan:

1) PLATFORM COOPS.

Mondragon Unibertsitatearekin eta New Yorkeko New Schoolekin batera, hitzarmena lortu dugu Lankidetzaren Euskal Agentziarekin, munduko hegoaldeko biztanleriaren ahalduntzea bultzatzeko. Horretarako, jarrera aktiboa sustatu nahi dugu bidezko lan-baldintzak bermatuko dituzten enpresak sortu eta ekonomia digital eta demokratikoa eraikitze, hori guztia plataforma-kooperatiba digitalak hedatzeko eta egokitzeko programa baten bidez.

2) TOSEPAN (MEXIKO): GARABIDE+MUNDUKIDE+LANKI (MU)

2021ean 4 boluntario —Carlos Oses (LABORAL Kutxa), Mercedes García, Izaskun Vildarraz (ULMA) eta Iñigo Gomez Udaondo (FAGOR)— 3 hilabetez egon dira Mexikon, 50.000 bazkide eta 12 kooperatiba biltzen dituen Tosepan kooperatiba-taldeko 6 kooperatiben inguruko diagnostikoa egiteko eta plan-proposamena lantzeko. Garabidek, Lankik eta Mundukidek proposatutako lankidetzak da. Hiru euskal entitate horiek garapenaren eta gizarte-justiziaren alorreko helburu berberak partekatzen dituzte, identitatea eta tokiko hizkuntza garatzea ere aintzat hartuz, eta osagarriak dira jardueran eta erantzukizunean: sozioekonomikoa Mundukiden, linguistiko-identitarioa Garabiden eta sistematizazioa eta pedagogiara bideratua Lankin.

b) Jardueren erabilitako giza baliabideak
2021eko ekitaldia

Mota	Kopurua		Orduak urtean	
	Aurreikusia	Egindakoa	Aurreikusia	Egindakoa
Soldatako langileak	20	22	30.996	31.083
Zerbitzu-kontratadun langileak	0	0		
Boluntarioak	20	19	4.000	3.965
Guztira	40	41	34.996	35.048

2020ko ekitaldia

Mota	Kopurua		Orduak urtean	
	Aurreikusia	Egindakoa	Aurreikusia	Egindakoa
Soldatako langileak	20	20	30.781	29.265
Zerbitzu-kontratadun langileak	0	0	-	-
Boluntarioak	20	22	5.000	2.200
Guztira	40	42	35.781	31.465

c) Jardueraren onuradunak edo erabiltzaileak

Mota	2021		2020	
	Kopurua		Kopurua	
	Aurreikusia	Egindakoa	Aurreikusia	Egindakoa
Pertsona fisikoak	75.000	75.040	100.000	69.143
Pertsona juridikoak	100	85	150	199

d) Jardueran erabilitako baliabide ekonomikoak

Gastuak / Inbertsioak	2021		2020	
	Zenbatekoa		Zenbatekoa	
	Aurreikusia	Egindakoa	Aurreikusia	Egindakoa
Laguntzen eta bestelakoen ondoriozko gastuak	1.195.844		1.444.877	
a) Laguntza monetarioak		765.413	-	565.392
b) Laguntza ez-monetarioak		52.447	-	39.417
c) Kolaborazio-gastuak eta gobernu-organismoarenak			-	-
Produktu bukatuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen arteko aldea			-	-
Pertsonal-gastuak	634.432	790.440	730.289	777.304
Jarduerako bestelako gastuak		245.147	-	161.393
Ibilgetuaren amortizazioa	332	332	332	332
Ibilgetua besterentzeagatik narriadura eta emaitzak		-	-	-
Finantza-gastuak	1.000	3.470	1.000	3.140
Finantza-tresnetako arrazoizko balioaren aldakuntzak			-	-
Kanbio-aldeak		-	-	72
Finantza-tresnak narriatzearen eta besterentzearen ondoriozko galerak		-	-	-
Mozkinen gaineko zergak		-	-	-
Gastuen guztizko partziala	1.831.608	1.857.249	2.176.498	1.547.050
Inbertsioak (ondare historikoko ondasunenak salbu)		-	-	-
Ondare historikoko ondasunak eskuratzea		-	-	-
Komertziala ez den zorra kitatzea		-	-	-
Baliabideen guztizko partziala				
GUZTIRA	1.831.608	1.857.249	2.176.498	1.547.050

e) Jardueran lortutako baliabide ekonomikoak

2021eko ekitaldia

Kontzeptua	Zenbatekoa		
	Aurreikusia	Egindakoa	Diferentzia
Entitatearen jardueraren ondoriozko sarrerak	1.380.056	1.743.080	363.024
a) Bazkide eta afiliatuaren kuotak	80.000	98.039	18.039
b) Sustapenetatik eta babesle eta kolaboratzaileengandik etortutako sarrerak	200.000	557.346	357.346
c) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.280.056	1.087.695	(192.361)
Bestelako sarrerak	40.000	114.120	74.120
Finantza-sarrerak	-	-	-
Kanbio-aldeak	-	49	49
Guztira	1.600.056	1.857.249	257.193

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administrazioilea

2020ko ekitaldia

Kontzeptua	Zenbatekoa		
	Aurreikusia	Egindakoa	Diferentzia
Entitatearen jardueraren ondoriozko sarrerak	1.955.015	1.468.047	(486.968)
a) Bazkide eta afiliatuen kuotak	100.000	105.316	5.316
b) Sustapenetatik eta babesle eta kolaboratzaileengandik etorritako sarrerak	640.000	665.312	25.312
c) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.215.015	697.419	(517.596)
Bestelako sarrerak	50.000	79.003	29.003
Finantza-sarrerak	-	-	-
Kanbio-aldeak	-	-	-
Guztira	2.005.015	1.547.050	(457.965)

f) Jardueraren helburuak eta adierazleak
MOZAMBIKE
2021eko ekitaldia

GJHa	Jarduera	Baliabidea	Eraitza	Emakumeak
1, 2, 8, 10	Laguntza teknikoa	Hitzarmenak tokiko 9 elkarterekin	117 irakasle	18 irakasle emakume
	Nekazaritza-produkzioa	Labore hauek bultzatu dira: sesamoa, babarrun arrunta, soja, mungoa, guandua, barazkiak eta fruta-arbolak	2.750 hektarea baino gehiago landatuta; horren balio zenbatetsia 1.250.000 eurotik gorakoa da	
	Sargaiak merkaturatzea	45 hitzarmen tokiko sargai-banatzailerekin	113.600 euro eman dira	
	Onuradunak GUZTIRA	10.735 zuzeneko partaide	43.000 onuradun	Zuzenekoaren artean % 25 emakumeak, zeharkakoaren artean % 52

2020ko ekitaldia

Jarduera	Baliabidea	Eraitza	Emakumeak
Ureztatzea	Labore nagusiak: tokiko tipula, buru-aza, uraza, piperra, hostodun barazkiak eta tomateak	429 hektarea ureztatuta	1.460 emakume dihardute barazkigintzan
Laguntza teknikoa	Hitzarmenak tokiko 21 elkarterekin	234 irakasle	29 emakume irakasle
Nekazaritza-produkzioa	Labore hauek bultzatu dira: sesamoa, babarrun arrunta, soja, kakahuete fina eta barazkiak	10.500 hektarea baino gehiago landatzen dira eta haien produkzioa 3,7 milioi eurotik gorakoa da	20.000 parte-hartzaile baino gehiago; 5.000tik gora emakumeak
Sargaiak merkaturatzea	66 hitzarmen tokiko sargai-banatzailerekin	95.000 euro eman dira	
Onuradunak GUZTIRA		40.500	(% 30 emakumeak)

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administrazioa

ETIOPIA
2021eko ekitaldia

G.HIa	Jarduera	Baliabidea	Emaizta	Emakumeak
2	Nekazaritza eta abeltzaintzako produkzioa sustatzea	Trebakuntza eta sargaien eskuragarritasuna	Arsiko 6 kebeletako emakume nekazariak sargaiak eskuragarri dituzte erabilera bikoitzeko nekazaritza-ekoizpenerako (elikadura eta errenta)	660
	Onuradunak GUZTIRA	660 emakumek hartu dute parte zuzenean	2.640 onuradun	% 70 emakumeak

BRASIL
2021eko ekitaldia

G.HIa	Jarduera	Baliabidea	Emaizta	Emakumeak
8	Kooperatibak kudeatzeko laguntza	5 kooperante Tokiko 3 talde 1 boluntario 1	5.011 bazkide dituzten 21 kooperatibari lagundu zaie 4 estatutan	1 kooperante 1 boluntario 1.753 emakumezko bazkide (% 35)
4	Prestakuntza	4 prestakuntza Ceará, Paranán eta Rio Grande do Sulen eta ikastaro nazional 1	512 pertsona trebatu dira	205 emakume
5	Generoa	3 emakume (2 koordinatzaile, hegoaldean eta ipar-ekialdean, eta teknikari 1, hegoaldean) Ipar-ekialdeko kooperatibei berdintasun-planetan laguntzea	Emakumeen 2 ekintzailatza-jarduerari laguntzea I hegoaldean 48 emakume, emakumeen ekintzailatza-jardueretan	
17	Elkar-lankidetzak	Kooperatiben arteko elkar-lankidetzak	-Produktzio-sektorea merkaturatzeko Eskritorio Nazionala -Produktzio-kooperatibez osatutako bigarren mailako 4 estatu-kooperatiba eta MSTko beste 16 kooperazio-erakunde - Landako Biltegien Sare Nazionala kudeatzeko taldea 77 laguni laguntza zuzena eman zaie	36 emakume trebatuta (% 46)
12	Ekoizpen ekologikoa merkaturatzea	Laguntza 8 denda fisiko irekitzea 7 denda fisiko eta 2 onlineko finkatzea	114 lagun	67 emakume
	Onuradunak GUZTIRA	5.011 bazkide	25.055 onuradun	(% 49 emakumeak)

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administrazioa

2020ko ekitaldia

GJHa	Jarduera	Baliabidea	Eraitza	Emakumeak
8	Kooperatibak kudeatzeko laguntza	6 kooperante Tokiko 3 talde	5.326 bazkide dituzten 23 kooperatibari lagundu zaie 5 estatutan	1 kooperante 1.476 emakumezko bazkide (% 26)
4	Prestakuntza	3 prestakuntza Cearán, Paraná eta Rio Grande do Sulen	81 pertsona trebatu dira	15 emakume
5	Generoa	Emakumeen 2 ekintzailatza-jarduerari laguntzea Hegoaldean	2 emakume (koordinatzailea eta teknikaria), hegoaldeko hiru estatuak ekoizpenaren sektorerako. Emakume-taldean ordezkariak: 5 emakume teknikari, emakume-taldei beren jardueretan laguntzen dieten laguntza-taldeetan 51 emakume, emakumeen ekintzailatza-jardueretan	
17	Elkar-lankidetzak	Kooperatiben arteko elkar-lankidetzak	-Produktzio-sektorea merkaturatzeko Eskritorio Nazionala -Produktzio-kooperatibez osatutako bigarren mailako 4 estatu-kooperatiba eta MSTko beste 16 kooperazio- erakunde - Kafe-katearen koordinazio- talde nazionala 80 laguni laguntza zuzena eman zaie	31 emakume trebatuta (% 33)
12	Ekoizpen ekologikoa merkaturatzea	8 denda irekita (6 fisikoak eta 2 onlinekoak) 12 denda irekitzeko prozesuan	43 lagun (% 81 30 urtez beherakoak)	21 emakume
	Onuradunak GUZTIRA		26.884 lagun	(% 50,3 emakumeak)

KOLONBIA
2021eko ekitaldia

GJHa	Jarduera	Baliabidea	Eraitza	Emakumeak
8	Pastoko birziklatzaileen kolektiboari laguntzea	Elkarteak eratu eta antolatzea	189 birziklatzailek kobratzen duten tarifa handitzea Industria eraldatzaileko baldintzak alkatetzarekin negoziatzea	142 emakume
4	Prestakuntza	Produktzio-ereduaren eraldaketa	408 lagunek nekazaritzako produktzio ekologikoan dihardute	313 emakume
17	Elkar-lankidetzak	Autogestionatutako 8 aurrezki-funts berri	120 lagun	90 emakume
	Zuzenean parte hartu duten pertsonak	717 emakumeren partaidetza	172 gizon	545 emakumeren partaidetza
	Onuradunak GUZTIRA	3.585		

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a.

Lehendakaria

Idazkaria

Administrazioa

2020ko ekitaldia

G.Ha	Jarduera	Baliabidea	Emaitza	Emakumeak
8	Kooperatibak kudeatzeko laguntza	25 lagunentzako laguntza zuzena	Birziklatzaileen 5 kooperatibari eta elkarteri eta 10 nekazaritza-elkarteri lagundu zaie	% 92 emakumeak
4	Prestakuntza	Prestakuntza-ekintzak	250 lagun nekazaritza-erakundeetakoak eta 45 lagun birziklatzaileen antolatzaileenak	% 81 emakumeak
17	Elkar-lankidetzak	ARP – Asociación de Recicladores de Pasto	14 lider ahaldundu	% 79 emakumeak
	Onuradunak GUZTIRA	905 pertsona	166 gizon	739 emakume

GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZA
2021eko ekitaldia

G.Ha	Jarduera	Baliabidea	Emaitza	Emakumeak
4	Laguntza hezkuntza-eragileentz bidez	Prestakuntza-saioak MU GEP eta Enpresagintza fakultateekin. Lankidetzak Arizmendi Ikastolarekin	700 ikasle trebatu dira 30 irakasle (Arizmendi eta MU)	242 emakume
17	Kooperatibei laguntzea prestakuntzan, hausnarketan eta ekintzan	8 kooperatiben arteko elkar-lankidetzak (Brasileko 4 eta Euskal Herriko 4)	60 lagunek hartu dute parte trukean	28 emakume
	Onuradunak GUZTIRA	760 partaide		270 emakume

2020ko ekitaldia

G.Ha	Jarduera	Baliabidea	Emaitza	Emakumeak
4	Prestakuntza	Prestakuntza-ekintzak: proiektuak, erronkak	MGEPEko 650 ikasle MU Enpresagintzako 150 ikasle 29 irakasle (Arizmendi eta MU)	% 36 emakumeak
17	Elkar-lankidetzak	Elkarguneak gaitu dira Euskadiko 4 kooperatibarekin eta Brasileko beste 4ekin	25 kooperatibistak dihardute talde eragileetan	% 52 emakumeak
	Onuradunak GUZTIRA	854 lagun	570 gizon	284 emakumeak

g) Beste entitate batzuekiko lankidetzak-hitzarmenak

- ULMA. Bere profesionalak MUNDUKIDErentzako proiektu solidarioak egitea bultzatzen du.
- LABORAL KUTXA. Mundukidek Arrasaten duen egoitzaren lokala laga digu prekarioan. LK KONPROMISO funtseko partaide izaten jarraitzen dugu. Horren bidez, gestio-komisioaren zati bat hainbat GKEri ematen die LABORAL Kutxak, eta horien artean dago Mundukide.

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administrazioa

- FAGOR EDERLAN, MAIER, COPRECI, ARIZMENDI IKASTOLA eta MONDRAGON UNIBERTSITATEA. Gizarte-eraldaketarako GEHIKOOP hezkuntza-proiektuan hartzen dute parte.
- EROSKI. Brasilgo programan laguntzen du, MSTko nekazarien produktuak merkaturatuz.
- WORK 4 PROGRESS. Programa horretan partaide gara, beste erakunde batzuekin batera —besteak beste, Ekintzaz Lagundu, ASSOR, Agência de Desenvolvimento Econômico Local da Província de Cabo Delgado (ADEL), Technoserve eta Universidade Politecnica—, Mozambike iparraldeko emakume eta gazteentzako kalitateko enplegu jasangarria sortzeko helburuarekin.

h) Jarduera-planaren eta egindakoaren arteko desbiderapena

2021eko ekitaldia

Jardueraren azalpenean aipatu dugunez, hauek izan dira ekitaldi honetako desbiderapen nagusien arrazoiak: Mozambikeko eta Etiopiako gatazka armatuak, Kolonbiako indarkeria eta oraindik nabaritzen diren COVID-19aren ondorioak. Azpimarragarriak dira:

- 1) ELKAR-LANKIDETZAren arloan, hegoaldeko herrialdeetan kooperanteen bidez laguntzeko ereduari larriki eragin dio Mozambikeko eta Etiopiako gerrak. Aurreikusitako jarduera ugari ezin izan ditugu gauzatu. Gainera, COVID-19aren eraginez, Brasilen aurreikusita zeuden aurrez aurreko prestakuntza-saiorik gehienak online prestakuntza bihurtu behar izan dira. Kolonbiako landa-eremuko indarkeriak jardueren bilakaera kaltetu du.
- 2) GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAren eremuan, GEHIKOOP proiektuan, aurrez aurreko saio asko online egin behar izan dira pandemiaren eraginez.
- 3) PERTSONEN atalean, COVID-19ak langile asko kutsatu ditu. Orokorrean, gaixotasunaren ondorioak arinak izan dira. Mugatu egin behar izan ditugu bidaiak, aurrez aurreko bilerak eta boluntarioen eta praktiketako ikasleen jarduera, osasuna lehenesteko.
- 4) SISTEMEN atalean, ezarritako sistemek egoki funtzionatu dute konfinamendu-aldietan. Ikastaroak martxan jarri dira online prestakuntzarako plataforma baten bidez.
- 5) FINANTZAKETAren atalean, kooperatiben, GKE-en eta pertsonen ekarpenak uste baino handiagoak izan dira, urtea korapilatsua izan arren.

2020ko ekitaldia

2020ko ekitaldiko desbiderapen nagusiak COVID-19aren ondoriozkoak izan ziren. Hauek nabarmentzen dira:

- 1) ELKAR-LANKIDETZAREN arloan, hegoaldeko herrialdeetan kooperanteen bidez laguntzeko ereduari larriki eragin zion COVID-19ak. Aurreikusitako jarduera ugari ezin izan genituen gauzatu. Gainera, aurreikusita zeuden aurrez aurreko prestakuntza-saiorik gehienak online prestakuntza bihurtu behar izan ziren. Eta diagnostiko- eta laguntza-jarduerak ere online egin ziren. Horrek zailtasun handiak ekarri zituen, batez ere kontuan hartuta beste kultura batzuetako jendearekin, konektatzeko zailtasun handiko inguruetan eta teknologia berriak erabiltzeko ohiturarik ez duten pertsonekin egin behar izan zirela.
- 2) GIZARTE-ERALDAKETARAKO HEZKUNTZAREN eremuan, GEHIKOOP proiektuan Euskadiko 20 kooperatibistaren bidaia zegoen aurreikusita, eta bertan behera geratu zen. Bestalde, Mondragon Unibertsitatean aurrez aurreko saioak eman ziren, nahiz eta online konexioa ere eskaini zitzaizen konfinatuta zeuden ikasleei.
- 3) PERTSONEN atalean, mugatu egin behar izan genituen bidaia, aurrez aurreko bilerak eta boluntarioen eta praktiketako ikasleen jarduera, osasuna lehenesteko. Egoitzan, konfinamendu-aldia bete ondoren, etxeko eta bulegoko lana txandakatu genuen. Afrikako 3 kooperante ABEEEn egon ziren maiatzetik abuztura bitartean. Bestalde, Brasilgo, Kolonbiako eta Ekuadorreko kooperanteek konfinamendu luzeak egin behar izan zituzten. Bi pertsona sartu ziren egoitzan: Brasilen bata (baja bat betetzeko) eta Mozambiken bestea (herrialde horretako programatik 2 lagun irtetearen ondorioz). Sartu ziren lagunen % 50 emakumeak dira, eta, beraz, bete egin da genero-planeko helburua.
- 4) SISTEMEN alorrean, ezarritako sistemek egoki funtzionatu zuten konfinamendu-aldian, eta onlineko prestakuntzarako plataforma bat ezartzeko premia zegoela nabarmendu zuen pandemiak.
- 5) FINANTZAKETAREN atalean, kooperatiben, GKE-en eta pertsonen ekarpenak uste baino handiagoak izan ziren, urtea korapilatsua izan arren.

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria:

Idazkaria:

Administratzailea:

16.2 Ondare-elementuak norberaren helburuetarako erabiltzea

1) Errenten eta sarreraren xedearen betetze-maila

Ekitaldia	Emaizta-kontuko sarrerak guztira	(-) Oinarrian sartuta ez dauden sarrerak (mozkin berrinbertituak) (1)	(-) Sarrerak eskuratzeko beharrezko gastuak (zati proportzionala) (1)	= KALKULU - OINARRIA	Bideratu beharreko gutxieneko errenta	%	Fundazioaren xedeetara bideratutako baliabideak (gastuak eta inbertsioak) (2)	Helburuak betetzera bideratutako baliabideen aplikazioa				
								2018	2019	2020	2021	Aplikatzeko dagoen zenbatekoa
2018	2.011.700	-	-	2.011.700	1.408.190	% 70	1.979.042	1.979.042	-	-	-	-
2019	2.174.093	-	-	2.174.093	1.521.865	% 70	2.145.288		2.145.288	-	-	-
2020	1.547.050	-	-	1.547.050	1.082.935	% 70	1.506.404			1.506.404	-	-
2021	1.857.200	-	-	1.857.200	1.300.040	% 70	1.836.043				1.836.043	-

Fundazioak bete egiten du 2019ko uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duenaren, 30. artikuluan xedatutakoa.

Lege horren arabera, Fundazioak egiten dituen jardueretatik edo ematen dituen zerbitzuetatik eskuratutako diru-sarreraren % 70 erabili beharko du, gutxienez, Fundazioaren xedeetarako. Fundazioaren xedeetarako erabili beharko den zenbatekoa kalkulatzeko, Fundazioaren emaitza-kontuko sarrera guztiak hartuko dira oinarritzat, baldin eta ondare-zuzkidura gisa egindako ekarpenak ez badira. Oinarri horretatik, diru-sarrerak eskuratzeko beharrezkoak izan diren gastuak kendu hala izango dira soilik, Fundazioaren xedeetarako gastuak salbu utzita. Emaizta-sarrerok lortu diren ekitaldiaren eta ekitaldi hori itxi ondorengo 3 urteen arteko epean bete beharko da betebeharrak.

Gastuak eta inbertsioak Fundazioaren xedeetara bideratu direla ulertuko da, baldin eta xede horiek lortzen benetan lagundu badute. Ez dira halakotzat joko amortizazioetarako zuzkidurak eta narriadurak eragindako galerak. Era berean, administrazio-gastuak eta diru-sarrerak lortzeko beharrezkoak direnak ez dira hartzen Fundazioaren xedeetara bideratutako gastutzat.

Ohar honetan aipatutako kalkulu-oinarria zehazteko ez dira inolaz ere sarreratzat hartzen Fundazioa eratzeke unean nahiz gerora zuzkidura moduan egindako ekarpenak.

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

37

2.- EKITALDIAN APLIKATUTAKO BALIABIDEAK

Kontzeptua	Aplikatutako zenbatekoa	
	2021eko ekitaldia	2020ko ekitaldia
Emaizta-kontuko gastuak guztira (16.d oharra)	1.857.249	1.547.050
Amortizazio-gastuak	(332)	(332)
Administrazio-gastuak	(20.874)	(40.314)
Beste gastu batzuk	-	-
a) Helburuak betetzeko gastuak	1.836.043	1.506.404
Ibilgetu materialean egindako inbertsioak	-	-
b) Helburuak betetzeko inbertsioak	-	-
GUZTIRA (a + b)	1.836.043	1.506.404

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administratzailea

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2021eko abenduaren 31koa

16.3. Administrazio-gastuak

ADMINISTRAZIO-GASTUEN XEHETASUNAK				2021	2020
KONTU-ZK.	EMAITZA-KONTUAREN KONTU-SAILA	GASTUEN XEHETASUNAK	ONDAREA ADMINISTRATZEKO ZEREGINERA EGOZTEKO IRIZPIDEA	ZENBA-TEKOA	ZENBA-TEKOA
640-641-642	Pertsonal-gastuak	PERTSONAL-KOSTUA	% 100	11.982	30.049
623	Profesional independenteen zerbitzuak	Laguntza-zerbitzuak (auditoretza- eta aholkularitza-gastuak)	% 100	8.702	9.821
625	Aseguru-primak	Bizitza-, gaixotasun-eta istripu-aseguruak	% 100	190	185
626	Banku-zerbitzuak eta antzekoak	Komisioak	% 100	0	159
629	Beste zerbitzu batzuk	Administrazioarako beharrezko dietak, kilometroak eta bisitak	% 100	0	100
ADMINISTRAZIO-GASTUAK GUZTIRA				20.874	40.314

Ekitaldia	ADMINISTRAZIO-GASTUAK				
	Sarrera garbien % 20 (2007ko ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren, EAEko Fundazioen Babesleztaren Erregelamendua onartzen duenaren, 22. artikulua)	Ondarearen administrazioak zuzenean eragindako gastuak	Patronatuko kideei ordaintzeko moduko gastuak	EKITALDIAN SORTUTAKO ADMINISTRAZIO-GASTUAK GUZTIRA	Gainditzen du (+) / ez du gaunditzen (-) gehieneko muga
2021	371.440	20.874	-	20.874	(350.566)
2020	309.410	40.314	-	40.314	(269.096)

Ekitaldia	ADMINISTRAZIO-GASTUAK				
	Funts propioen % 5 (2019ko uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren, EAEko Fundazioen Babesleztaren Erregelamendua onartzen duenaren, 31. artikulua)	Ondarearen administrazioak zuzenean eragindako gastuak	Patronatuko kideei ordaintzeko moduko gastuak	EKITALDIAN SORTUTAKO ADMINISTRAZIO-GASTUAK GUZTIRA	Gaunditzen du (+) / ez du gaunditzen (-) gehieneko muga
2021	56.886	20.874	-	20.874	(36.012)
2020	56.886	40.314	-	40.314	(16.572)

Fundazioak bete egiten du 2007ko ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesleztaren Erregelamendua onartzen duenaren, 22. artikulua administrazio gastearako finkatzen duen muga. Horren arabera, administrazio gasteak ezingo dira Fundazioak lortutako sarrera garbien % 20tik gorakoak izan. Dena delarik ere, salbuespen gisa, Babesleztak ehuneko hori gaunditzeko baimena eman ahal izango du, Fundazioak arrazoiutako eskabidea egin ostean eta ezartzen dituen muga eta baldintzekin.

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administrazioa

17. OHARRA. BESTELAKO INFORMAZIOA**a) Patronatuko Batzordeko kideen eta Goi Zuzendaritzako langileen ordainsariak**

Fundazioaren Patronatuko Batzordea 20 kidek osatzen dute: 2021eko abenduaren 31n, 16 gizonak izan dira eta 4 emakumeak (2020ko abenduaren 31n 14 gizonak eta 5 emakumeak ziren).

Patronatuko Batzordeko kide gehienak pertsona juridikoak ordezkatzuz etortzen dira, Kooperatibak eta GKEak ordezkatzuz nagusiki, eta, berez, ez dute inolako ordainsaririk jasotzen kargua betetzeagatik. Nolanahi ere, 2021eko abenduaren 31n 4 kide eta 2020ko abenduaren 31n 3 kide langileen ordezkari moduan etorri direnez, 107.701 eta 73.908 euro jaso dituzte, hurrenez hurren, langile diren aldetik dagokielako.

2021eko eta 2020ko abenduaren 31n, Fundazioak ez du betebeharririk administrazio- eta zuzendaritza- organoetako aurreko edo egungo kideen pentsioei eta bizitza-aseguruei dagokienez. Halaber, ez du inolako obligaziorik hartu bermeen alorrean.

Zuzendaritzako funtsezko langileek 48 eta 47 mila euro kobratu dituzte, hurrenez hurren, soldata eta ordainsari gordinetan, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n. Zuzendaritzan langile bakarra dago: gizonazkoa.


2021eko eta 2020ko ekitaldietan, Fundazioaren Patronatuko kideek eta Zuzendaritzako funtsezko kideek ez dute Fundazioarekin ohiko trafikoaz edo merkatuko baldintzez gaindiko eragiketarik egin.

b) Ingurumenari buruzko informazioa

Fundazioak ez du bere ibilgetu materialean ingurumen-inpaktua txikitzeko eta ingurumena babestu eta hobetzeko helburua duen aktiborik. Halaber, ekitaldian ez du helburu horri erantzuteko dirulaguntzarik jaso, eta halako gasturik ere ez du egin. Bestalde, Fundazioak ez du hornidurarik egin ingurumenaren alorreko jardueretako arriskuak eta gastuak estaltzeko, uste izan baitu ez dagoela ingurumena babestu eta hobetzeko xedea duen gorabeherarik.

Beraz, Fundazioak adierazi duenez, aurtengo urteko kontuetako kontabilitatean ez dago ingurumenari buruzko aparteko agirian sartzeko partidarik (2001eko urriaren 8an Ekonomia Ministerioak emandako Aginduan jasotzen da jarraibide hori).

Arrasate, 2022ko otsalaren 15a

Lehendakaria	Idazkaria	Administrazioaile
		

d) Hornitzaileei egindako ordainketa-geroratzeei buruzko informazioa. 2010eko uztailaren 5eko 15/2010 Legearen, Informatzeko Betebeharrari buruzkoaren, hirugarren xedapen gehigarria

Hona hemen 2021eko eta 2020ko ekitaldietan eskatutako informazioaren xehakapena:

	2021	2020
	Egunak	Egunak
Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	19	21

$$\begin{array}{l}
 \text{* Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea} \\
 \hline
 \frac{\text{Hartzekodun komertzialen batez besteko saldoa}}{\text{Erosketa garbiak eta kumpoko zerbitzuengatikoko gastuak}} \times 365
 \end{array}$$

e) Auditoretzako zerbitzu-sariak

Gure kontu-auditoreak, LKS AUDITORES SLPk, 2021eko eta 2020ko ekitaldietan urteko kontu laburtuen auditoretza egiteagatik jasotako ordainsariak 3.765 eurokoak izan dira bi ekitaldietan.

Zenbateko horiek 2021eko eta 2020ko ekitaldietan emandako zerbitzu-sari guztiak biltzen dituzte, noiz fakturatu diren kontuan hartu gabe.

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria	Idazkaria	Administratzailea
		

MUNDUKIDE FUNDAZIOA

Memoria laburtua, 2021eko abenduaren 31koa

18. OHARRA. INBENTARIOA

ELEMENTUAREN DESKRIBAPENA	Eskurapen- data	Eskurapen-balio	Aldakuntzak balioztapenean	Narriaduraren, amortizazioen eta abarren ondoriozk galerak	
Informatika-aplikazioak - ERP programa	01-2011	10.856	-	(10.856)	F
Informatika-aplikazioak - WIKI plataforma	03-2012	5.074	-	(5.074)	F
IBILGETU UKIEZINA GUZTIRA		15.930	-	(15.930)	
Altzariak	05-2016	3.316	-	(1.879)	F
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	01-2008	1.129	-	(1.129)	F
IBILGETU MATERIALA GUZTIRA		4.445	-	(3.008)	
Fiare bankuko partaidetza	2016	633	-	-	F
Osarteko partaidetza	2017	1.712	-	-	F
EPE LUZEKO FINANTZA- INBERTSIOAK GUZTIRA		2.345	-	-	
GUZTIZKO OROKORRA		22.720	-	(18.938)	

* Zamak (G), norberaren helburuetarakoak (F), Fundazioaren zuzkidura (D)

19. OHARRA. ITXIERAREN ONDORENGO EGITATEAK

2021eko ekitaldia itxi zenetik urteko kontu laburtuak formulatu diren arte, ez da kontuetan eragina duen gertaera nabarmenik izan, ezta aipatu behar den bestelako jazoerarik ere.

Arrasate, 2022ko otsailaren 15a

Lehendakaria

Idazkaria

Administrazioailea